anboto

TOKIKOM

2012ko uztailaren 13a
10. urtea - 467 zk.

durangaldeko astekaria

www.anboto.org

Herririk Herri | 2
Epaitegien aginduz Espainiako bandera jarri dute Elorrioko Udalean

Kirola | 20
Ruben Perez: “Suspertu eta aurrera jarraitu behar dugu. Ez dugu etsiko”

Jaiak | Gehigarria
Otxandioko jaiak

DURANGO | 2

10 kilometroko bidegorria izango du Durangok laster

Bidegorri sarearen seigarren fasea onartu du udalak. Alde zaharra eta Tabirako igerilekuak lotuko ditu bidegorriaren fase berriak. Udalak dionez bizikletaren erabilera %6 igo da herrian.

BERBAZ | 10

“Glencree esperientzia oso positiboa izan da”

Mari Carmen Hernandezek, Jesus Mari Pedrosaren alargunak, Glencree ekimenean parte hartu du. Jatorri askotako biktimekin duela bost urte jarri zuten ekimena martxan.

ABADIÑO | 7

ELAren delegatua kaleratzea kritikatu dute Pierburgen

ELA sindikatuak kontzentrazioa egingo du enpresaren aurrean, gaur eguerdian, “kaleratze bidegabea eta zuzendaritzak delegatuekiko azken urteetan burutu duen jazarpena salatzeko”.

APAINGARRIA ETA INDUSTRIALA
Pinturas Sagasta Pinturak
FATXADETARAKO PROIEKTU BEREZIAK
ERA GUZTIETAKO BARNE ETA KANPOKO DEKORAZIOAK
Sagasta auzoa - Anbe Goikoa - 48220 ABADIÑO - Bizkaia
Tel.: 629 143 944

Leihoak
ALUMINIOA-PVC-MISTOA
Murueta, 3 - behea
48220 Abadiño (Bizkaia)
Tel.: 652 73 63 39
Fax: 94 620 00 65
leihoak@hotmail.com

Durango | 3
Lokalen araudi proposamen berria aurkeztu dute gazteek

Elorrio | 4
Alegazio bakar bat ere ez du jaso terrazen ordenantzak

Izurtza | 7
Radarrak jartzeko eskaerei ezezkoa eman die Jaurlaritzak

Otxandio | 8
Ezpatadantzari Eguna ospatuko dute bihar Otxandion

HERRIRIK HERRI >

Anboto Komunikabideak
@anboto

DURANGO

Tabira auzoraino ailegatuko da laster bidegorria

Bidegorri sarearen seigarren fasea onartu du udalak; hamar kilometro edukitzera pasatuko da

Alde zaharra eta Tabirako igerilekuak lotuko ditu bidegorriaren tarte berriak. 2008an hasi zen udala bidegorri sarea zabaltzen. Ordura arte, Muruetatorreko kiroldegiaren inguruan zegoen bakarrik ziklistentzako bidea. 600 metro alderik alde. Azken lau urteetan bost fasetan eraiki du udalak bidegorria, eta berri honegaz, guztira hamar kilometro edukiko ditu. Planoa eskegi dute *www.durango-udala.net* webgunean, eta ekarpenak ere egin ahalko dira uztailaren 20ra arte.

Udal ordezkariek azaldu dutenez, bizikleta joan-etorriak %6 igo dira azken hiru urteotan

Esate baterako, 250 ikasle joaten dira egunero eskolara bizikletan

Udal ordezkariek azaldu dutenez, bizikleta joan-etorriak %6 igo dira azken hiru urteotan. Esate baterako, 250 ikasle joaten dira egunero eskolara bizikletan. Garapen iraunkorraren zinegotzi Iker Ocejak dioenez, garraio jasangarria bultzatzeko beharrean, bide onetik doazela erakusten dute jasotako datuek: "Bide beretik jarraituko dugu. Izan ere, Durango, neurriei eta ezaugarri geografikoei erreparatuta, hiri aproposa da bizikletaz ibiltzeko". ■ M. Onaindia

Txirrindulari bat bidegorria erabiltzen, Landako inguruan.

Hurrengo fasean auzoak lotuko dituzte bidegorrira

Bidegorri sarea bost fasetan garatu du orain arte udalak. Lehenengoan, alde zaharra eta Askatasun etorbidea lotu zituzten. Bigarrenean, Landako eskola, Landako igerilekuak eta alde zaharra. Hirugarrenean, Landako eskola, San Ignazio eta Frai Juan Zumarraga Institutua. Laugarrenean, San Fausto eta alde zaharra. Eta bosgarrenean, San Fausto, Alienalde industrialdea eta Abadiñoko Astola auzoa. Seigarrenean egingo dute onartu berri dena: alde zaharra eta Tabira artekoa.

Ordezkariek diotenez, orain eraikiko duten zatiaren ostean zer egin ere badute pentsatua. Hurrengo fasean, auzoak lotuko dituzte bidegorri sarera. Esaterako, Frai Juan Zumarraga institututik Aramotzera jarraituko dute. Handik, sahiesbideagaz paraleloan, Tabira alderaino eraikitzea aurreikusten dute.



"Bidegorria ondo dago, eta zati gehiago egongo balira hobeto"

Angel Rodrigezek egunero erabiltzen du bidegorria. Bizikletan joaten da beharrera. "Bidegorria ondo dago, eta zati gehiago egongo balira hobeto". Abantailak dauzka, bere ustez: "Bidegorritik ez daukazu kontrako norabidean joateko beharrik, Montevideotik Kurutziagarantza bazatoz, adibidez".

Dioenez, oinezkoek ez dute bidegorria asko errespetatzen: "Umeen aulkiekin-eta erdian gelditzen direnean molestatzen du gehien".

"Txirrindulari askok ere zapaltzen dugu bidegorria oinez goazenean"

Basilio Paniaguak sarri erabiltzen du bidegorria. Bere iritziz ondo dago, baina badauka zer hobetu: "Gasteizen, adibidez, hesi batzuekin mugatuta dago bidegorria". Zeozelan markatuta, oinezkoak ez pasatzeko argigarriagoa litzakela uste du.

Oinezkoekin tolerantzia behar dela pentsatzen du: "Bizikletan egunero dabilena kexatu egiten da, baina txirrindulari askok ere zapaltzen dugu oinez goazenean". Oraindik kontzientziazioa falta ei da.

Lokalen barruko erabilera pribatua izatea gura dute

Gazteek eta bizilagunek lokalak arautzeko proposamen berria egin dute



Aingeru Mimentza eta Leire Legorburu, atzean prozesuko partaideak dauzkatela.

Amaitu dute gazte lokalen ordenantza berria proposatzeko prozesu parte-hartzailea. Urtarrilean landu zuen udalbatzarrak gaia, baina lokalen erabiltzaileek protesta egin zuten, euren iritzia ez zela kontuan hartu esanez. Ondorioz, udalaren araudia geldi geratu zen. Gazteek eztabaida prozesua egitea erabaki zuten, bizilagunak eta elkarteak ere gonbidatuta. Prozesua unibertsitateko ikasle talde batek dinamizatu du, eta hauen izenean Aingeru Mimentzak laburbildu ditu ondorioak: "Udalak ezarri nahi dituen kontrolak justifika ezinak direla erabaki da". Ekintzen memoria eta baimenak ipini ditu adibide. "Lokalen barruan egiten diren jarduerak, edonoren etxean bezala, pribatuak izango dira". Bestelako neurri askotan ere, etxeei ezartzen zaizkien arauak ezartzea eskatu dute. Esaterako, suteak detektatzeko tresnak instalatzea exijitzen du hasierako ordenantzak. Neurria kendu egin gura dute.

Mimentza: "Udalak ezarri nahi dituen kontrolak justifika ezinak direla erabaki da"

Erabiltzaile eta bizilagunek ez ei dute beharrezko ikusi lokalen itxiera arautzea

Lokalen itxiera orduak sortu ei ditu batzarretan eztabaida handienak. Ordenantzak zioen 22:30ean zarratu beharko zirela.

Legorburu: "Udalari gure hitza entzun eta errespetatu dezala eskatzen diogu"

Erabiltzaile eta bizilagunek ez ei dute beharrezko ikusi itxiera arautzea. Ordu hori, zarata amaitzeko izan dadila planteatu dute. Horrez gainera, zigor ekonomikoak gehiegizkoak direla diote. Arauak haustean, zigorra lokalak zarratzea izatea gura dute.

Leire Legorburuk prozesuko partaideen izenean esan du ordenantza berriak bizikidetza eta errespetua dauzkala oinarri. "Lokalekin lotura dugun eragileen hitza entzun eta beharrak ulertzeko ahalegina izan da prozesua". Alderdi politikoei eskatu die proposamenaren alde egiteko: "Udalari gure hitza entzun eta errespetatzeko eskatzen diogu". Alderdiei emango diete txostena, eta udalbatzarrak uda ostean lantzea itxaroten dute. ■ M.O.

Eguzki-panelak ipiniko dituzte herriko eraikin publikoetan

Klima aldaketaren aurkako udal planean 42 ekintza zehaztu dituzte

Udalak klima aldaketaren aurkako plana garatu du. Martxoan landu zuten udalbatzarrean eta, alegazio epearen ostean, behin-betiko onartu dute. Guztira, 42 neurri zehaztu dituzte sektoreka.

2015era bitarteko plana da onartutakoa. Ekintzak, aurrekontuak eta arduradunak zeintzuk diren adierazten du txostenak. Energia sektoreari dagokionez, eraikin publikoetan eguzki-panel termikoak edo fotovoltaikoak ezarri gura dituzte udal eraikinetan, 600.000 euroko inbertsioagaz. Eraginkortasun handiko galdarak eta argia pizteko presentzia-detektagailuak ere ipini gura dituzte. Gainera, energia aurrezteko aholkularitza eskainiko diete enpresei.

Energia aurrezteko aholkularitza eskainiko diete enpresei

Hondakin elektronikoak batzeko, enpresaren bategaz hitzarmena lotzeko asmoa dute. Bestalde, haurtzaindegietan eta nagusien egoitzetan pixoihal berrerabilgarriekin lan egitea gura dute, 2014a baino lehen. ■ M. O.

Gestio arloan egin dituzte hobekuntza gehienak

Agenda 21eko Ekintza Plana berrikusiko du udalak; orain arteko ebaluazioa aurkeztu dute

Agenda 21eko Ekintza Plana berrikusten hasi da udala. 2007 eta 2011 artean garatu zuten lehenengo plana, eta dagoeneko egin dute ebaluazioa. 2011n, 120 ekintzetatik %41 zeuden amaituta, eta %37 ia amaituta. Ebaluazio txostenaren arabera, udalaren gestio arloan egin dituzte hobekuntza gehienak. Arreta Zerbitzua zabaltzea edota informazio panelak ipintzea dira txostenak aipatzen dituen hobekuntzetako batzuk.

Ekintza plana berritu gura du, eta Agenda 21eko batzarretan landuko dute. Datorren asterako deituta zegoen hurrengoa, baina partaide batzuek agertu ezingo dutela-eta, irailaren 13ra atzeratu dute. ■ M. O.

ELORRIO

Bake-epaileak euskaraz ez jakitea kritikatu du Bilduk

Bilduren zinegotzi Idoia Buruagak euskara irizpideak ez betetzea leporatu dio EAJri

Eguazteneko udalbatzarrean bake-epailea izendatu zuten. Gobernu taldearen proposamena EAJren eta PPren aldeko botoekin atera zen aurrera. Bilduk kontra bozkatu zuen, proposatutako pertsonak euskaraz ez dakiela arrazoituta.

Epailea elorriarra da. Idoia Buruagaren ustez (Bildu), EAJrentzako garrantzitsuagoa da epailea herrikoa izatea euskaraz jakitea baino. Lehiaketako baldintzen harira zuzendu zien kritika: "Zergatik ez duzue eskatu euskararen ezagutza eta erabilera minimo bat?". Joseba Mujika alkateordeak erantzun zion baldintzak aurreko legealdiko berberak izan direla: "Euskararen erabilera bermatuta geratuko da". Eztabaida ez zen hor amaitu. Buruagaren arabera, desberdina da euskara irakurtzen jakitea eta herritarrekin hartuemana edukitzea. Aditzera eman zuen EAJren bermea epaileak irakurri egingo duela dela. Buruagak euskara irizpideak ez betetzea leporatu zion EAJri: "Ez duzue betetzen euskararen ordenantza". Mujikak esan zuen ez dagoela ados euskaragaz sentsibilitaterik ez daukatela dioenean.

Buruaga: "Zergatik ez duzue eskatu euskararen ezagutza eta erabilera minimo bat?"

Mujikak Buruagari erantzun zion baldintzak aurreko legealdiko berberak direla

Garcia: "Garrantzitsuagoa da epaileak hartuko dituen erabakiak justuak izatea"

PPren zinegotzi Carlos Garciak euskararen ezagutza bigarren mailakoa dela esan zuen: "Elebiduna izatea garrantzitsua izan daiteke, baina garrantzitsuagoa da hartuko dituen erabakiak justuak izatea". Adierazi zuen euskaraz jakinez gero hobe dela, baina lehenengo pertsona egokia ote den begiratu behar dela.

Bilduren ustez, bake-epailearena ez da kasu isolatua. Udalaren kanpainetan eta propagandetan kartel gehienak gazteleraz izan direla gaitzetsi zuen Buruagak. Jakitera eman zuen herritarren kexak heldu zaizkiela Aste Berdean begirale bat gaztelera hutsean ibli delako. ■ M. O.

Alegazio bakar bat ere ez du jaso terrazen araudi berriak

Txakurren ordenantzak 156 ekarpen eduki ditu eta hamasei onartu dituzte

Tabernariek ordenantzaren arabera ipini beharko dituzte terrazak.

Udalak ez du ekarpen edo kexa bakarra ere jaso ostalaritzako terrazen ordenantzaren inguruan. Joseba Mujika alkateordeak eman zuen horren berri eguaztenean. Mujikaren berbetan, ostalariei ekarpenak egiteko epea eman zaie, eta inor ez da agertu alegatzen. Alegazio epea amaituta, terrazen eta txakurren araudiak behin betiko onartu zituzten udal bilkuran, aho batez.

Ostalarien aldetik ez, baina udalak bere zuzenketak egin ditu. Alde batetik, kristalezko itxiturez gainera polikarbonatozkoak ere baimendu dituzte. Mujikaren esanetan, merkeagoak eta arinagoak dira, eta eragin berbera daukate. Bestetik, terrazak ipintzeko ordutegia tabernak zabalik dauden orduetara luzatu du udalak. Ordenantzak neurri estetikoak ezartzen ditu, teknikoez aparte. Esaterako, eguzkitik babesteko oihaletan granate kolorea erabili beharko da.

Txakurren arautegiari dagokionez, 156 ekarpen jaso eta hamasei onartu dituzte. Horietatik asko ATEA animalien aldeko elkarteak egin ditu. Txakurrak aske ibiltzeko gune bereziak zazpi izango dira, bederatzi beharrean. Anbulatoriokoa eta Goieta ingurukoa kendu dituzte. Azken honetan lehendik antzeko gune bat badagoela konturatu dira.

Terrazak ipintzeko ordutegia tabernak zabalik dauden orduetara luzatu du udalak

Jabeei begirako kartelak

Txakurren jabeei zuzendutako kartelak ipiniko dituzte herrian. Portaeraz eta arauez informatuko dute kartelek. Udaltzaingoak, ostera, ikastaro bat jasoko du araudiaren eta arau-hausteen inguruan. Udalak ordenantza zelan geratzen den azalduko die herritarrei. ■ M. Onaindia

Hamazazpi udal tramite Internet bidez egin ahal dira dagoeneko

Orain arte udal bulegoetan bakarrik egin ahal ziren hamazazpi tramite, orain Internetez ere egiteko aukera eskaini dute. Udal webguneko menuan atal bat sortu dute, *Tramiteak* izenekoa. Herritarrek, etxeko ordenagailutik atal horretara sartu eta ez dute joan beharko udaletxera. Martxan dauden prozedurak, ohikoenak dira: erroldagaz lotutakoak, hitzordu eskaerak, kexak edota haurreskolarako eskaera, esaterako. Etorkizunean 100 tramite egiteko aukera eskaini gura du udalak.

Dokumentazio guztia era digitalean udalak sinatuta deskargatu ahal izango da. Tramiteak zelan egin ikasi gura duenak udaletxean dauka aukera, 10:30etik 13:30era. Uda ostean, ikastaro bereziak eratuko dituzte, laguntzeko. ■ M. O.

ZALDIBAR

Goierri auzoko jaiek hartu dute herrikoen lekukoa

Bihar izango dituzte jai ekitaldi gehienak auzoan

Gaur iluntzean emango diete Santa Mariñeko jaiei hasiera Goierri auzoan. Sardina-jana, bolo jokoa eta erromeria izango dituzte jaiak ondo hasteko. Biharkoa da, baina, ekitaldi gehien pilatzen dituen jaietako eguna Goierrin. Adin guztientzako ekintzak jasotzen ditu egitarauak: bakailao eta paella txapelketa, umeentzako jolasak, karta jokoa, kale antzerkia, herri afaria eta erromeria... Auzoko nagusiei ohiturazko omenaldia egingo diete, bestalde, domekan, 13:00etan.

Balorazio oso baikorra

Bestalde, joan den asteburuko Zaldibarko jaien "oso balorazio baikorra" egin du Bilduren gobernuak. Zaldua plazako ekitaldietan eta kalejiran lortutako giroarekin oso pozik agertu dira. ■ I.E.

RENAULT CLIO AUTHENTIQUE
1.5 dCi 70ZP
2008. Urtekoa

7.900€*

RENAULT OCASIÓN

*PSPak transferentzia-gastuak barne ditu. Eskaintza 2012/07/31n amaitzen da edo izakinak amaitzean. Irudiko modeloa Renault Clio Dynamique da.

RENAULT recomienda elf

RENAULT

GAURSA ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO www.gaursaautoak.com
BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

DURANGALDEA

Epaitegien aginduz, Elorrion Espainiako bandera ipini dute

Zaldibarren prozesu judiziala hasita dago; Izurtzan, Mañarian eta Otxandion ere jaso dute notifikazioa

Pasa den asteko eguenean ipini zuten Espainiako bandera Elorrion.

Udaletxeko atzealdea eta frontoira begirako horma batzen diren lekuan ipini dute Espainiako bandera Elorrion, ikurriñaren alboan. Espainiako gobernu delegatuak jarritako salaketa baten ostean ipini du bandera udalak.

Elorrioko Udalak duela urtebete jaso zuten gobernu delegatuaren abisua. Udalak ez zuen bandera ipini eta ez du justizia arloan pausurik eman. Ana Otadui alkateak azaldu duenez, "ondorioak zeintzuk izango ziren jakinda, epaitegietan dirurik ez gastatzea erabaki genuen". Maiatzean heldu zen sententzia; udala bandera jartzera derrigortzen zuen epaileak.

Ana Otaduik esan du bere asmoa ikurriña plazan ipini eta omenaldi bat egitea dela

Ekainaren 25ean hamar eguneko epea eman zieten. "Ez digute esan zeintzuk izango liratekeen ez ipintzearen ondorioak, baina idazkariak azaldu digu alkatea ezgaitzea edo ondasun pertsonalekin ordaintzea izan daitezkeela zigorrak". Ikurriña dagoen lekuan Espainiako bandera ipini behar zela, eta frontoi alboan ipini dituzte biak. Otaduik esan du bere asmoa ikurriña plazan ipini eta omenaldi bat antolatzea dela: "Badakit zein den nire bandera; ezin didate beste bat inposatu".

Administrazioaren eraikinen kanpoaldean eta barrualdean Espainiako bandera ipini behar dela dio Espainiako 39/1981 legeak. Euskal Herriko hainbat udaletxetan hori betetzen ez dela eta, hainbat udal salatu ditu Espainiako gobernu delegatuak. Adibidez, Zaldibarren prozesu judiziala hasita dago. Izurtzan, Mañarian eta Otxandion ere delegatuaren salaketa jaso dute.

"Herritarrek ez dute nahi"

Gobernu delegatuaren agindua jasotzen lehenengo herrietako bat Zaldibar izan zen. Udalak helegitea ipini zuen eta erantzunaren zain daude. Arantza Baigorri alkatearen berbetan, "behartzen bagaituzte ipiniko dugu, baina argi daukagu herritarrek ez dutela udaletxean Espainiako banderarik nahi". Otxandiora ere heldu da agindua eta udal gobernuak antzeko baloraziora egin du: "Gure ustez, ez gabiltza oker herritarren gehiengo zabal batek bandera espainola bere egiten ez duela diogunean".

Izurtza eta Mañariako udalek ere jaso dute abisua. Momentuz banderarik ipiniko ez dutela azaldu dute bertako ordezkariek, eta Bilduk nazio mailan egingo duen irakurketaren zain daudela. Durangaldeko gainerako udaletan ez dute oraindik jakinarazpenik jaso. Durangon 2008an ipini zuten bandera, bi urteko prozesu judizialaren ostean. ■ A. Ugalde

Durangaldeko bi, EH Bilduk aurkeztutako lan taldean

Julen Arzuaga abokatua eta Marian Bilbatua irakaslea daude koalizioak aurkeztutako lantaldean

Arzuaga eta Bilbatua, atzean, ezkerretik hirugarren eta laugarren.

EH Bilduk Lehendakaritza eskuratuz gero osatuko lukeen gobernu taldea aurkeztu du. Durangaldeko ordezkari bi egongo lirateke bertan: Julen Arzuaga eta Marian Bilbatua.

Areta-Laudion jaiotako da Julen Arzuaga, baina gaur egun Berrizen bizi da. Herritarren Askatasunak sailburutza hartuko luke berak. Zuzenbidean lizentziaduna da eta Zuzenbide Konstituzionaleko doktoregaia; 40 urte ditu. Nazio Batuen Erakundeko hainbat erakundetan aritu da, eta torturagaz eta herrien eskubideekin lotutako gaiak landu ditu. Euskal HerrikoGiza Eskubideen Behatokiko kide izan da.

Marian Bilbatuak (Getxo, 62 urte) Hezkuntza, Kirola eta Kultura hartuko luke. Politika Zientzietako lizentziaduna da eta Hezkuntza Zientzietako doktorea. Bilbatua Durangon bizi da eta Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateko irakaslea da. ■ A. B

GARAI

Dirulaguntzekin egingo dituzte frontoiko lanak

106.700 euroko aurrekontua dauka proiektuak, eta %95 ordaintzeko subentzioa jaso du udalak

Hiru dirulaguntza lortuta ekingo dio udalak frontoiko aldagelak konpontzeko proiektuari. 106.700 euroko aurrekontua dauka egitasmoak, eta horren %95 subentzioekin kubrituko dute. Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza bi eman ditu, Azpiegitura eta Kirol sailei esker: 49.700 euro eta 25.000 euro. Euskko Jaurlaritzak 32.000 euroko ekarpena egin du, irisgarritasuna –ezinduentzako sarrerak– hobetzeko. Udal ordezkariek azaldu dute seguruenik irailean hasiko direla obrak, eta urte bukaerarako amaituta egon beharko dute.

Martitzenean udal batzarra egin zuten zinegotziek, eta aho batez onartu zuten egitasmoa. Lanak ere adjudikatu zituzten, eta Urre enpresak edukiko du obraren ardura.

Aspaldiko komunak

Frontoiko aldagelak aspaldikoak direla-eta egingo dituzte obrak. Hezetasuna eta irisgarritasun falta dira arazo handienak. Ordezkarien arabera, hau da herriko eraikin publikoetan irisgarritasuneko arauak betetzeko falta den leku bakarra. ■ M. O.

ABADIÑO

"Langileak beldurtu gura dituzte kaleratze honegaz"

Bi urtez ELA sindikatuaren delegatua izan da Asier Ezenarro Pierburg-en eta joan zen astean kaleratu zuten; protesta deitu dute, gaurko, enpresa aurrean

Zortzi urtez egin du lan 39 urteko Ezenarrok Pierburg enpresako kalitate arloan.

Joan zen astean kaleratu zuten Asier Ezenarro elgetarra Pierburg enpresatik. Diziplinazko kaleratzea ezarri diote. ELA sindikatuaren delegatua izan da azken bi urteetan Ezenarro, eta sindikatuko bere kideek diotenez, "enpresako bulegoan delegatu moduan egin duen lana deseroso zaielako kaleratu dute: langilegoa beldurtzea da lortu gura dutena". Eta Ezenarroren ustez lortu dute: "Beldur itzela dago, inor ez da mugitzen; nahiago dute isilik geratu, pankartaren atzean agertuz gero hurrengoak izango direla uste dutelako".

Mikel Elizburu ELAko kideak dioenez, tailerrean langileen eskubideen alde egiten zebiltzan lana bulegora zabalduko zutela ikusi zuen enpresak, eta delegatuekiko jazarpenari ekin: "Ordu sindikalak hartzeagatik, aparteko ordurik ez egiteagatik, edo prekarietatea salatzeagatik presioa egiten hasi zen enpresa duela bi urte". Elizburuk dioenez, "Asierrek delegatu legez egin duen funtzioa mugatu guran ibili dira urteotan".

Sindikatze eskubidearen kontrako eraso oso larritzat du Asier Ezenarro delegatuaren kaleratzea ELAk. Horregatik, Durangaldeko, Busturialdeko eta Lea-Artibaiko bere ordezkariak batuko ditu gaur enpresa aurreko kontzentrazioan, kaleratzea gogor gaitzesteko.

Demanda aurkeztu du sindikatuak, eta epaitegiek arrazoia emango dietela seguru daude. Pierburg enpresako ELAko delegatuak jasaten ari diren jazarpena ere salatuko dute helegitean. ■ I.E.

"Komitearen gehiengoaren kontrako ituna adostu dute"

UGTk eta ELAk sei ordezkari, eta ESK sindikatuak bat daukate Pierburg enpresako batzordean. Enpresagaz lan hitzarmena lantzeko helburuagaz jardun dute ELAk eta ESK-k. Baina, ELAko ordezkarien berbetan, "komitearen gehiengoaren kontrako ituna adostu dute UGTk eta zuzendaritzak, eta langileak atxikimendu pertsonala ematera behartu gura dituzte".

Itun horren kontra bide judizialetik jotzeko asmoa daukala azaldu du ELAk. Batzordeko kide baten kaleratzearen aurrean UGT isilik geratzea ere gogor kritikatu du ELAk. ■ I.E.

IZURTZA

Radarrak jartzeko eskaerari ezetz esan dio Jaurlaritzak

Alternatibak bilatzeko Jaurlaritzaren, Aldundiaren eta Udalaren arteko batzarra proposatu dute

Eusko Jaurlaritzaren Trafiko zuzendari Amparo Lopezegaz izandako batzarrean, Izurtzako alkate Luis Ballarinek berriro adierazi zion herriguneko irteeretan radar bana ipintzeko beharra.

Izurtzako Udalak behin baino gehiagotan egin du eskaera berbera, herrigunetik autoak gehiegizko abiaduran pasatzen direla uste duelako. Eusko Jaurlaritzak erantzun die ez dutela aurreikusten radarrak ipintzeko aukerarik.

Radar finkoen ordez, autoen bidezko kontrol mugikorrak egiten jarraituko dute. Neurri hori ez zaio nahikoa iruditzen Ballarini: "Aste batean egoten dira eta hurrengo hiru hileetan bat ere ez". Beraz, Amparo Lopezi eskatu dio Aldundiagaz hartuemanetan jar daitezela, hiru erakundeen arteko batzar bat posible den aztertzeko. Lopez ados agertu da eta alternatibak bilatzen jarraitzeko prest dagoela adierazi du.

Alternatiba posibleei buruz ere jardun dute batzarrean: biribilgune bat egitea, autoen abiadura markatzen duen seinaletzapena jartzea, herrigunean erreia estutzea edo beste asfalto mota bat ipintzea, beste neurri posible batzuen artean. ■ J.D.

Amparo Lopez ados agertu da eta alternatibak bilatzen jarraitzeko prest dago

MAÑARIA

Laguardiara joango dira, upategian bazkaltzera

Mañariko Udalak irteera eratu du biharko. Laguardiara joango dira egun pasa, eta hango Launa upategian bazkalduko dute. Goizeko 09:00etan irtengo dute Mañariko autobus geltokitik.

Goizeko 11:00etan helduko dira, gutxi gora-behera, upategira. Instalazioak bisitatuko dituzte, eta hamaiketakoan batuko dira gero. 12:30 aldean, Laguardiara hurreratuko dira, herriguneko upategi bat ezagutzera. Ostean, Launara bueltatu eta hantxe bazkalduko dute. Bazkalostean libre edukiko dute.

Udalak urtero antzeko irteeraren bat antolatzeko ohitura dauka. Aurtengora inskribatu direnek, 40 euro ordaindu behar izan dituzte. ■ M.O.

ATXONDO

Musika, dantza eta paella txapelketa Santiago jaietan

Uztailaren 20an hasita, Santiago jaiak ospatuko dituzte izen bereko auzoan dagoen ermita inguruan. Barikuan, iluntzean txopoa jasoko dute, eta berakatz zopa banatu.

Zapatuan paella txapelketa egingo dute eguerdian, eta iluntzean erromeria eskainiko du Luhartz taldeak. Domeka, dantzen eta txapelketen eguna izango da. Mezaren ostean saioa eskainiko du Andasto dantza taldeak eta, gero, briska eta mus txapelketak jokatuko dituzte. Arratsaldean, iaz lehenengoz antolatu zuten patata zuritze txapelketa errepikatuko dute. Amaitzeko, uztailaren 25ean, Santiago Egunean, mozorro lehiaketa egingo dute. ■ M.O.

Mobilizazioak abiatu dituzte asteon Rothenberger enpresako langileek

Mobilizazioak hasi dituzte Rothenberger taldeko langileek. *Inposaketarik ez* lemapean burutu dituzte kontzentrazioak, enpresako batzordeak deituta. Urteko lehenengo seihilekoan enpresaren emaitzek txarrera egin dutela argudiatuta, langileen soldata %5 murriztea eta lanorduak gehitzea proposatu die zuzendaritzak. "Ez gaude prest horrenbeste kostata eskuratutako eskubideei uko egiteko", esan dute langileek. Zuzendaritzak "akordio azkarra" lotu gura duela, baina langilegoak "negoziazioa behar bezala egiteko irailera atzeratzea" eskatuko dutela adierazi dute.

BERRIZ

Toponimia ikerketa behin betiko onartu du udalbatzak

Alegazioen ostean, behin betiko onartu dute Berrizko toponimia ikerketa udalbatzarrean. Alegazio bi jaso ditu ikerketak; Eitua auzoan *Dukiena* izenagaz ezagutzen den baserriari buruzkoa –Arginzonizbeaskoaldekoa izango da izen ofiziala–, eta Pastor de Gorbea jatetxea dagoen etxeari buruzkoa –Altzategi–.

Behin izen ofizialak finkatuta, auzoen sarreretan seinaleak ipiniko dituzte auzoko mapagaz eta baserrien izenekin. Orlan Isoird alkateak dioenez, herritarrek horren premia nabarmendu dute. Aurten dute asmoa martxan ipintzeko. ■ A.U.

Durangaldean labur

Auzorik auzo irtengo dira Mendiolako sankristobaletan

Mendiolan San Kristobal jaiak ospatzen ari dira. Bihar lehenengoz Mendiola mendi bira egingo du Errekatxo auzo elkarteak. Ibilbide bi prestatu dituzte: hiru eta bost ordukoak. Izen-ematea 08:00etan hasiko da. Larrano, Urkiola, Atxarte…, bisitatuko dituzte ibilaldian. Bestalde, gaur, 23:00etan Zarraparra, Ghert-tzainak eta Los Zopilotes Txirriaos taldeen kontzertua dago eta bihar erromeria Luhartzegaz.

Esklerosi anizkoitza duten pertsonen alde batu dira

Pasa den domekan *Busti zaitez esklerosi anizkoitzarengatik* kanpainagaz bat egin zuten 55 lagunek, Abadiñoko Astolako igerilekuan. Esklerosi anizkoitzak kaltetutako pertsonen aldeko ekitaldi sinbolikoak 15. edizioa izan du aurten. Sentsibilizazioa eta gaixo hauen erreabilitaziorako dirua batzea dira kanpainaren helburuak.

Zaldibarko gazte bat hil da auto istripuan

Eguaztenean, Mallabian, Trabakuarako igoeran izan zen auto istripuan 31 urteko Zaldibarko gazte bat hil zen. Autoa irauli egin zitzaion eta barruan harrapatuta geratu zen. Osasun langileek ez zuten ezer egiterik izan. Durangotik Ondarroarako noranzkoan gertatu zen istripua.

Aukera Azoka egingo dute bihar Berrizen

Bihar, uztailak 14, IV. Aukera Azoka egingo du Berrizko Merkatarien Elkarteak. Probalekuan, bederatzi merkatarik denetariko generoa salduko dute, beherapenak kalera eroanda. Goizeko 10:00etatik 19:00etara ipini dute ordutegia Aukera Azokarako.

OTXANDIO

Ezpatadantzariek aurten Otxandion ospatuko dute jaia

Bihar, eskualdeko hamabost dantza taldetako 120 dantzari batuko dituzte Ezpatadantzari Egunean

Aurten Otxandiori dagokio ezpatadantzaren inguruko jai nagusia hartzea. Garairi hartuko dio lekukoa. Gerediaga Elkarteak antolatuta, Durangaldeko hamabost dantza talde eta 120 dantzari inguru batuko dira plazan, Santa Maña jaiak are koloretsuago bihurtzeko.

Durangaldeko zortzi herritako dantza taldeak batuko dira udaletxe aurreko plazan. Iurretatik eta Berriztik hiruna talde etorriko dira; Durangotik, Abadiñotik eta Otxandiotik bina; eta Mañaria, Izurtza eta Garaitik bana.

Lehenengo, 18:30ean, dantzari denek kalejiran irtengo dute herrian zehar. Ostean, 19:00etan, hainbat dantza erakutsiko dituzte plazan, dantzari guztiek batera. Dantzari dantza osoa ikusi ahalko da: agintariena, zortzinangoa, ezpata joku txikia, bananngoa, ezpata joku nagusia, binangoa, launangoa, makil jokua eta txotxongiloa. Ondoren, dantzari batzuek soka dantza saiao eskainiko dute.

Erakustaldiaren ostean, mahaiak eta aulkiak atondu eta plazan bertan afalduko dute dantzari guztiek elkarrekin. Ezpatadantzari Egunari dantzan emango diote amaiera, Laket taldeak eskainiko duen erromeriaren laguntzagaz.

Ezpatadantzari Eguna lehenengoz antolatu zutenetik 45. urteurrena egingo da aurten. Iurretan izan zen lehen aldi hura. ■ J.D.

Dantzariak Garain, iazko Ezpatadantzi egunean. Txelu Angoitia-Gerediaga elkartea

Lehenengo, 18:30ean, dantzari denak kalejiran irtengo dira herrian zehar

Durangaldeko zortzi herritako dantza taldeak batuko dira udaletxe aurreko plazan

IURRETA

361.000 euro bideratuko dituzte garbiketa lanetara

Kaleak garbitzeko 178.200 euro hitzartu ditu udalak; udal eraikinak garbitzeko, 182.800 euro

Guztira, 361.000 euro. Batetik, kaleak garbitu eta saneamendurako 178.200 euro izango ditu Inbisa Medioambiente enpresak. Abuztutik aurrera, urteko egun guztietan emango dute zerbitzua, eta hiru langile izango ditu lanotarako. Zortzi urteko epealdirako kontratua da. Abenduan eman zituzten lanok, baina, lehiaketara aurkeztutako bigarren enpresa baten errekurtsoa argitu arte zerbitzua etenda egon da.

Bestetik, Lantegi Batuak arduratuko da udal instalazio eta eraikinak garbitzeaz. Urtean 182.836 euroko aurrekontua izango dute (urte birako), eta hamar langile beharko dituzte. Orain arte ez bezala enpresa bakarra arduratuko da horretaz. Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatearen berbetan, "zerbitzua hobetzeagaz batera datozen lau urteetan 50.000 euro aurreztea ere lortuko dugu". ■ A.B.

Iñaki Totorikaguena: "Datozen lau urteetan 50.000 euro aurreztea ere lortuko dugu"

Maiztegiko komunetarako, 48.500 euro

Maiztegi eskolako 2. solairuan, iaz berriztu barik geratu ziren komunak konponduko dituzte. 48.490 euro inbertitu beharko dira eta ikasturte berria hasi aurretik amaitu gura dituzte, irailean eskolara normal itzultzeko.

Eskola "moderno eta erakargarria" lortzeko beharrezkoak dira lanok, Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan. Pisu bakoitzean komun-gune bi daude ($28m^2$), eta ezinduentzako irisgarritasuna bermatuta dago guztietan. Biltegi bat ere sortuko dute, komuneko eta garbitasunerako tresneria gordetzeko. Hilebete eta erdiko epea dute lanak amaitzeko. ■ A. B.

MALLABIA

Ondarrurako autobus zerbitzua jarri dute berriro

EuskoTrenek apirilaren 16an autobus zerbitzua kendu ostean udalak alegazioa aurkeztu zuen

Mallabiko Udalak aurkeztutako alegazioen aurrean EuskoTrenek autobus ordutegia aldatu du. Ondarruraino orduro zihoan autobusa, laurden gutxiagotan Mallabitik ateratzen dena, "berreskuratu" egin dutela azaldu du Mila Mondragon alkateak: "Azken aldaketak direla-eta, Mallabitik kostaldera zuzenean joateko aukera kendu egin ziguten, baina, kexa eta alegazioak aurkeztu ondoren zerbitzua ostera ere jarri dute". Gaineratu duenez, "berriro ere Mallabitik Mendaroraino bakarrik ez, Debara, Mutrikura eta Ondarruraino ere joateko aukera dago". Zerbitzu hori uda garaian eta neguan ere mantenduko da.

Gainera, EuskoTrenen eta Bizkaibusen autobusen ordutegiek ez dute bat egiten, lehen bezala, zerbitzu biak ia aldi berean. Orain herrigunetik Debabarrenarantz hogei minuturo autobusa dago. ■ J. G

Orain, herrigunetik Debabarrenara hogei minuturo autobusa dago

EUSKO LABEL
Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

Eusko Labela duten kalitate goreneko elikagaiak

Benetakoaz gozatu

Eusko Label produktuaz gozatzea, hain zuzen ere, gure ekoizleek beren lanean jartzen duten arreta balioesten jakitea da, ingurune pribilegiatu parekaezin bat iraunarazten jakitea da, goi mailako kalitate ziurtatua duten produktuak aukeratzen jakitea da... eta benetakoaren zaporeaz gozatzen jakitea da.

Gehiago jakiteak gehiago gozatzea baitakar.

EUSKO LABEL
Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

www.benetakoazgozatu.com

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

hazi
Landa eta itsas ingurunearen garapenerako Eusko Jaurlaritzaren Korporazioa
Corporación del Gobierno Vasco para el desarrollo del medio rural y marino

BERBAZ >

"Adiskidetzea beharrean, elkarbizitza baketsua da gizarteak behar duena"

Mari Carmen Hernandezek Glencree ekimenean parte hartu du; Jesus Mari Pedrosa PPko zinegotziaren alarguna da

Mari Carmen Hernandez•

- Atxondo, 1946
- ETAk 2000. urtean hil zuen bere senar Jesus Mari Pedrosa, Durangoko PPko zinegotzia

Isilean egindako lanaren berri eman dute Glencree ekimeneko kideek. Duela bost urte ETAren, GALen, Batallon Vasco-Españolen eta Poliziaren biktimak batzeari ekin zioten elkarren berri izan zezaten. Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako ekimenean 25 lagun bildu dira bost urteotan. Hasieran Irlandan elkartu ziren. Ostean, gertuagoko topaketak izan dituzte. Talde honetako kide izan da Mari Carmen Hernandez, Jesus Mari Pedrosaren alarguna.

Zelan hartu zenuen ekimen honetan parte hartzeko proposamena?
Oso positiboa iritzi nion hasieratik. Lehenengo deialdirako deitu ninduten, baina datak ez zitzaizkidan ondo etorri eta bigarrenera joan nintzen. Egitea behar genuen gauza bat zela uste nuen: beste biktima batzuei entzutea.

Zergatik Irlanda eta Glencree?
Topaketa gure testuingurutik kanpo antolatzeko baldintzak betetzen zituelako. Erakunde honek munduko biolentzia errealitate askori buruzko jardunaldiak antolatu ditu. Lehenengo bi saioak han egin genituen. Beste batzuk, beste leku batzuetan, Euskal Herrian ere bai.

Joan aurretik taldeko inor ezagutzen zenuen?
Egunkarietatik agian baten bat. Maixabel [Lasa, Biktimen Arretarako Bulegoko zuzendaria] da ezagutzen nuen bakarra, eta hura ere oso gutxi. Hegaldia hartzeko elkartu ginenean ez dakizunez zegaz topo egingo duzun, beldur horregaz zoaz.

Zein metodologia erabili zenuten batzarrak antolatzeko?
Heltzeagaz batera elkar ezagutzeko batzarra egin genuen. Batzarren nondik norakoak azaldu zizkiguten eta izotza urtzen joan zen. Tentsio handiko momentua izan zen.

Prozesu honetan mesfidantzarik izan duzue?
Ezezkoan nago. Denok gogotsu joan ginen bakoitzak bere aldetik ipintzeko. Tentsio momentuak egon ziren. Bakoitzak bere historia azaltzea gogorra izan zen. Prozesua neketsua izan

"Horixe zen denok komunean geneukana: sufrimendua"

"Taldeak ez du sufritutako biolentziaren ordezkari izan gura"

arren, irteterakoan besarkadak eta negarrak egon ziren. Barkamena ere eskatzen zen. Alde guztietatik sufrimendu handiak egon diren historiak azaltzen ari ginen. Horixe zen denok komunean geneukana: sufrimendua.

Zein izan da taldearen helburua?
Taldeak ez du sufritutako biolentziaren ordezkari izan gura. Ezberdinen arteko eztabaida bultzatzeko baldintzak indartu gura izan ditugu. Gaur egunera arte ezelango errekonozimendurik izan ez duten biktimekin ere bai.

Elkar ulertzera heldu zarete?
Adostasun puntuetara heldu gara. Batez ere errespetua eta elkarbitzitza baketsua. Esperientzia hau autokritika indibidual edo kolektiboa izatea gurako genuke, zailtasunak zailtasun, elkar ulertzea posible dela erakusteko.

Maila pertsonalean zertan lagundu dizu?
Zauriak osatzen laguntzen du. Batzuek esan zuten liberazio moduko bat izan zela. Positiboa izan da talde osoarentzako.

Glencree ekimenaren partaideok azaldu duzuenez, biktimak deskribatzeko sarritan erabiltzen dituzten definizioekin ez dago ados zuen taldea.
Ez dugu atsegin zelan berba egiten den gizartean gure errealitateaz, errealitate hori oso anitza delako. Gizarteari gure mezua helarazteko eman genuen prentsaurrekoan azaldu genuenez, tabuak eta oztopoak hautsiz hurbildu gara elkarrengana. Bakoitzaren beldurrak eta estereotipoak, frustrazioak eta norberaren atsekabe historia aurrez aurre jarrita, elkarrekin bizitzeko oinarriak aztertu ditugu.

Barkamena eskatu beharraren inguruan berba egiten du askok.
Guk gai hori ez dugu landu. Barkamenak dimentsio pertsonal bat dauka. Adiskidetzea beharrean, elkarbizitza baketsua da gizarteak behar duena. Ez dago historia idazteko presarik eduki beharrik. Urteekin idazten joango da. Bakoitzak lehenaldiaren inguruko autokritika egin behar du egiarekin eta justiziarekin. Egin diren akatsetatik ikasi beharra dugu berriro ez egiteko. Hurrengo belaunaldiak ea lasaiago bizi diren.

Ekimen honetatik aparte, Langraizko (Araba) preso batekin egon zara. Zelako esperientzia izan da?
Berarekin ea batzartu gura nuen galdetu zidaten eta baietz erantzun nuen. Pertsona horrek bizi izan duen sufrimendua ikusi dut. Autokritika prozesua egin du eta zintzoa iruditu zitzaidan. Familiei sortu dien minak ez duela atzera bueltarik esan nion, garrantzitsuena bide horretatik jarraitzea dela. ■ J. Guenetxea

@anbotokultura

KULTURA>

LITTLE JOHN AND THE HOWLING DIABRUS>

“Ondoen landu ditugun lau kantak eta bi bertsio grabatuko ditugu”

Grabatzen hasi orduko egin du berba Eihar Uriarte baxu-jotzaileak Little John & The Howling Diabrus taldeaz; taldekideak ditu Jon Agirre bateria, Joseba Agirre harmonika, eta Ibon Berriozabalgoitia gitarra eta ahotsa

Orain aste batzuk Durangoko Intxaurren jo zenuten kontzertua taldearen azken aurrekoa zela iragarri zenuten.
Ez dugu gura, baina taldekide bat bigarrenez aita izan da, eta utzi egin beharko dugu taldea. Ez dago Joseba modukorik, eta beste harmonika-jole bategaz ez litzateke berdina izango.

Azken kontzertua noiz?
Aste honetan diskoa grabatzen gabiltza, eta uztailaren 20an Otxandioko jaietan, gaztetxean eskainiko dugu azkena.

Zein da Little John & The Howling Diabrus taldearen historia?
Oso tartekako taldea izan da. Ibon eta Jon parranda batean hasi ziren 50. hamarkadako blues musikari buruz berba egiten, eta bertsio batzuk jotzea erabaki zuten. Laster proposatu ziguten beste taldekideoi, eta horrela hasi ginen bertsioak entseatzen. Mañariako txabolan hasi ginen entseguak egiten.

“Uztailaren 20an Otxandioko jaietan, gaztetxean eskainiko dugu azken kontzertua”

Esate baterako zeintzuk bertsio jotzen zenituzten?
Howling Wolf, Little Walter, Muddy Waters edo Bo Didleyren kantak hasi ginen jotzen. Taldekideontzako erreferentziazko dira musikari horiek. Blues musikak harmonika asko daukanez, eta nik Yoko Out taldean jotzen dudanez, Joseba ere berotu genuen.

“Garage blues deskribatzen dugu egiten duguna: blues oinarria daukan musika zikina ”

Zuen ukitua eman izan diezue bertsio horiei.
Bai. Gure asmoa hasieratik izan da 50eko hamarkadako bertsioak baina modu azeleratuagoan egitea: punk ukitu bategaz egitea.

Noiz hasi zineten taldeagaz?
2009-2010 inguruan hasi ginen, pare bat kontzertu jo genituen Little John izenagaz. Izenaren bigarren partea kontzertu bakoitzerako aldatzen genuen hasieran: ez ginen izen bategaz ados jartzen [barrez]. Kontzertu batzuk jo genituen, eta geldialdi bat eta gero 2010eko otsailean hartu genuen serioago. Maiatz eta ekain hartan bost kontzertu eskaini genituen, eta diskoa grabatzeko asmoa bageneukan dagoeneko iaz, baina ordutegi arazoengatik-eta, azkenean ez zen posible izan. Martxoan berriro heldu diogu ideia horri.

“Ibonen ahots baxu eta apurtua egiten dugun musikaren bereizgarria da”

Hasi zarete grabazioagaz, ezta?
Bai. Ondoen landu ditugun gure lau abesti, eta bi bertsio grabatuko ditugu: Howlin Wolf eta Dr Feel Goodenak.

Zer musika mota egiten duzue azkenaldian?
Azkenaldian egin ditugun bertsioak ez dira 50eko hamarkadakoak bakarrik izan: 70 eta 80koak ere jo ditugu. Guk *garage blues* deskribatzen dugu egiten duguna: blues oinarria daukan musika zikina. Bestalde, Ibonen ahots baxu eta apurtua ere gure musikaren bereizgarria da.■ I.Esteban

Diskoa doan deskargatzeko aukera ‘bandcamp’ gunean

Urteotan abesti batzuk “bidean galdu” izan zaizkiela kontatu du Ehiar Uriarte baxujoleak. Diskoa zergatik ari diren egiten argi dauka: “Betirako hor geratuko den gure musikaren bilduma edukitzeko”. B.E.K. taldeko *Potxis* izan dute grabazioagaz laguntzen.

Baina, ez daukate diskoa kaleratzeko asmorik. Diskoaren ale fisikoa taldekideek bakarrik edukiko dute. Uriartek azaldu duenez, *www.bandcamp.com* webgunera igoko dituzte sei kantak, eta debalde jaisteko aukera eskainiko dute. Webgune bat ere sortu gura dute diskoa doan deskargatzeko. Datorren asterako edo, gehienez, aste bi barrurako prest edukitzea espero dute.

Beste talde batzuetan “rock asko” egin izan dute taldekideek, Uriartek dioenez, eta hortik aldendu gura izan du Little John & The Howling Diabrus taldeak. Horregatik da talde berezia.

Bluesa berez “triste antzekoa” izan arren, erritmo bizikoak dira Little John eta lagunen kantak: “Entzule gehienek irribarre bategaz amaitzen dute kontzertuetan”, ziurtatu du Uriartek. Durangoko Arkarazo eta Ttipi-Ttapa tabernetan eskaini zituzten kontzertuak gogoratzen dituzte bereziki, umore on horren seinale.

‘www.bandcamp.com’-era igoko dituzte sei kantak, eta jaisteko aukera eskainiko dute



ARTEA>

Artisten artean 7.500 euroko laguntza banatuko du udalak

Sorkuntza artistikoko edozein modalitateko proposamenak lagundu gura ditu Durangoko Udalak, eta abuztuaren 2ra arte aurkeztu ahalko dituzte parte-hartzaileek euren proiektuak

Durangoko Udalaren Astarloa Kulturgintza erakundeak egin du Sorkuntza Artistikorako bekaren deialdia. Edozein arlotako arte sorkuntza lagundu eta bultzatu gura dute: eszenarakoa, arte plastikoetakoa, argazkigintzakoa, literaturakoa, musikakoa, ikus-entzunezkoen eremukoa eta abar. Guztira 7.500 euroko diru-atala bideratu du Durangoko Udalak beka honetara aurkezten diren proiektuen artean banatzeko.

Abuztuaren 2ra arte jasoko ditu Durangoko Udalak artisten proposamen eta ideiak (Arte eta Historia Museoan) eta diru laguntza jasoko duten proposamenak garatzeko, epe zehatza emango du Durangoko Udalak.

Proiektu batek baino gehiagok jaso ahal du diru laguntza, lehiaketaren oinarriek zehazten dutenez. Proiektu irabazleak hautatzeko, lau irizpide hartuko dituzte kontuan epaimahaikideek: proiektuaren kalitate artistikoa; lana jendaurrean aurkezteko aukerak; euskararen erabilera; eta alde ekonomikoa (aurrekontuaren doiketa eta bideragarritasuna).

> Proiektu irabazleak hautatzeko, lau irizpide hartuko dituzte kontuan

Norbanakoek zein taldeek parte har dezakete beka deialdian. Baldintza bakarra, taldekideen bi herenak 2011 baino lehenagotik Durangon erroldatuta egotea izango da.

Informazio gehiago Bizkaiko Foru Aldundiaren Boletin Ofizialean aurkitu ahal da; bertan argitaratu dituzte diru laguntzen oinarri eta xehetasun guztiak. ■ I.E.

Miriam Peñaren proiektua hautatu zuten 2009ko deialdian.

OINARRIAK

Epea: abuztuaren 2ra arte aurkeztu ahal dira proiektuak.

Lekua: Durangoko Arte eta Historia Museoan aurkeztu behar dira proposamenak.

Kopurua: 7.500 euroko diru atala bideratu du Durangoko Udalak aukeratutako proiektuen artean banatzeko.

Baloratuko direnak: proiektuaren kalitate artistikoa; lana jendaurrean erakusteko aukerak; aurrekontuaren doiketa, errealismoa eta proiektuaren bideragarritasuna; euskararen erabilera.

Xehetasun gehiago: *www.bizkaia.net/lehendakaritza/Bao_bob/2012/07/20120703a127.pdf#page=62*

MUSIKA>

Travellin Brothers Big Band taldearen blues doinuak Musikairen

Blues doinuak eskainiko dituzte hamasei bandakidek bihar, eta domekan eta datorren barikuan antzerkia egongo da

Big Band bat da The Travellin Brothers, hamasei musikarik osaturiko taldea. Bihar, 22:30ean, herriko plazan eskainiko dute emanaldia, Musikaire jaialdiaren barruan. Soka, haize eta perkusio instrumentuak eta ahots jokoak baliatuz blues doinuak sortzen dituzte taldekideek. Leioan sortu zuten taldea, 2003an, eta 2010etik hona dihardute Big Band formatu handi honetan.

Dantza eta akrobaziak

Domekan, 22:30ean, *Natura... principio y fin* antzezlana eskainiko dute plazan. Teatraporen obra da, 80ko hamarkadan Extremaduran sortu zuten taldearena. Ekologiaren aldeko mezua zabalduko dute Elorrion, dantzaren, akrobazien, musikaren eta estetika bereziaren bitartez.

Datorren barikuan ere antzerkiarekin du hitzordua Musikairek: Morboriaren *El rey y el bufon* antzezlana izango da ikusgai. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Fernan Ruiz
Berbaroko kidea

ERROTONDA

Iritsi berri da Italiatik. Gogokoa du lehen egunak lasai igarotzea, itsasoa eta gure inguruetako berdea ditu gustukoen. Pare bat urte izango dira azkenekoz hemen izan zela. Loiutik hona autoan etorri da eta, atzoko kontua ez bada ere, atentzioa eman dio honaino ailegatzeko horrenbeste errotondatatik bueltaka ibili behar izateak. Trafikoa bideratzeko asmakizun aparta, neure artean, istripuak izateko arriskua gutxitzen du, abiadura motelarazi, norabidea aldatzeko balio du, galduta joanez gero norabidea topatzen lagun dezake… Bestalde, gero eta dotoreagoak diseinatzen dituzte, lore, landare eta zuhaixkekin jantzita.

Hemengo berriei gertu-gertutik jarraitzen die Felicek eta, terrazan eseri bezain laster, euskararen erabilera dela-eta, egunotan argitaratu diren azken neurketaren datuak izan ditu hizpide. Ez naiz euskarari buruz lanetik kanpo berba egiteko zalea, baina tira… Errotonden haritik tiraka segitu du lagun italiarrak eta, neure burutazioak irakurri izan balitu legez, biribilgune ezin egokiagoak eta apainak deritze euskara normalizatzeko jarri dizkiguten (ditugun) baliabideei. Norabidea markatzen dituen bide-seinaleei esker, mantsoago edo azkarrago, badugu nondik jo. Galdurik ibiliz gero, pare bat buelta eman eta seguru da irtenbidea topatuko duguna. Asko dugu, haatik, ez dakigu nor garen eta nor nahi dugun izan. 1993az geroztik, ez atzera ez aurrera dago euskararen erabilera Bizkaian. Kezkatzekoa baita "egungo baldintza soziolinguistikoekin euskararen erabilerak goia jo duela" entzutea. Ikerketaren arabera, umeak eta emakumeak dira erabileraren salbatzaile…

Erantzun diot biribilguneak baditugula bai, baina horiek ez dutela dena aldeko; bide-seinalerik ezean, bueltak eta bueltak eman eta, sarri gogaituta, ezinean ari garela norabide zuzena bilatzen. Jira-biren zorabioan, eskerrak, tarteka-marteka, gozaturen bat ematen digun errotonden erdigunean apaingarri dauden lora eta landaretza ederrak.

ZINEMA>

Zinema plazan ikusteko aukera izango dute Berrizen eta Iurretan

Berrizen gaur eta uztailaren 20an emango dituzte filmak eta Iurretan hilaren 28an; euria bada aterpean izango dira

Aita San Migel plaza da udako zinema emanaldien Iurretako kokalekua, eta Olakueta plaza Berrizkoa. Uztailaren 5ean egin zuten lehenengo emanaldia Iurretan, eta uztailaren 28rako daukate zikloaren bigarren emanaldia programatuta: *Urte berri on amona* komedia beltza emango dute egun horretan. Telmo Esnalek zuzendurikoa da lana. Aita San Migel plazan izango da emanaldi hori ere, eta euria eginez gero frontoira lekualdatuko dute.

Berrizen, hiru film emanaldi antolatu zituzten kalean ikusteko, hirurak uztailerako. *Los vengadores* eman zuten joan zen barikuan, eta gaur *John Carter* emango dute; datorren barikuan *Intocable* ikusiko dute. Gaurko emanaldia, Olakuetan barik, Elizondo plazan dago aurreikusita, baina euria bada probalekuan egingo dute. Abentura eta fantasia uztartzen ditu *John Carter* filmak, eta zazpi urtetik gorako ikuslegoari dago zuzenduta.

> Aita San Miguel plaza da Iurretako kokalekua, eta Olakueta Berrizkoa

Uztailaren 20an, Olakueta plazan izango da udako zinemaren azkenengo emanaldia. *Intocable* filmaren zuzendariak Olivier Nakache eta Eric Toledano dira, eta egiazko gertaeretan oinarritutako istorio bat kontatu dute fikzioaren bidez. ■ I.E.

ANTZERKIA>

Akrobaziak eta jolasak, Uda Kalean Bizik proposatuta, gaur

'Orsai' ikuskizuna eskainiko dute Durangoko udaletxeko plazan; Gorka Gansok zuzendu du

Udaletxeko plazan eskainiko du Uda Kalean Bizi jaialdiaren barruko bere emanaldia Malas Compañias taldeak, gaur, 19:00etan. Publiko guztientzako egokia da *Orsai*: egunerokotasuneko objetuei eta ekintza sinpleei beste zentzu bat ematen diete aktoreek, akrobaziak eta jolasak baliatuta. Diego Aimar, Mikel Pikaza eta Roberto Ferro aktoreek jarduten dute eszenan, eta Durangoko Ganso & Cia taldeko Gorka Gansok burutu du obraren zuzendaritza lana.

Durangoko San Agustin kulturguneak antolatzen du Uda Kalean Bizi. Gorka Ganso lehenago ere jardun izan da programa horretan. "Oso harreman sakona daukagu kulturguneagaz", azaldu du durangarrak. Izan ere, duela bost urtetik hona, kulturgunean dauka kokatuta bere egoitza Gansoren antzerki konpainiak.

Bere taldearen filosofia eta Uda Kalean Bizi programazioarena bat datozela dio Gorka Gansok. Izan ere, kaleko antzerkian jarduten baitu Ganso & Ciak: "Maite dugu antzerkia kalean erakustea, oso diziplina berezia da, eta aretoko antzerkiak ez dauzkan osagaiak dauzka: publikoa antzerkira hurreratzen du kalekoak, eta agian kaleko antzezlan bat ikusi duena irailean San Agustin kulturguneko emanaldietara erakartzen lagundu dezake".

> "Maite dugu antzerkia kalean erakustea, oso diziplina berezia da"

Aste Santuan clown teknikaren inguruko ikastaroa antolatu zuten Ganso & Cia taldeak eta Durangoko San Agustin kulturguneak. Oso pozik daude ikastaro horrek eduki zuen harreragaz, eta neurri batean, Durango clownaren munduko erreferentzia bilakatu daitekeela erakutsi duelako. Horretan ere badihardute San Agustinekin kolaboratzen. ■ I.E.

> Aste Santuan clown teknikaren inguruko ikastaroa antolatu zuten

"Trebeziari baino, plazerari garrantzia gehiago ematen dion zirku ikuskizuna da"

Gorka Gansok dioenez, zuzendu berri duen obran publikoagaz jolasten dute, clown teknikak erabilita

Zelan sortu zaizu Malas Compañias Zirko Taldeagaz kolaboratzeko aukera hau?

Oilaskoetxea lanean ere kolaboratu nuen Malas Compañias taldearekin, izan ere, urteetako erlazioa daukagu. Antzerki ikastaroetan, eta beste hainbat gauzatan elkarrekin jardun izan dugu lehenago ere. Aktoreek euren trebezia eta gabeziak ezagutzen zituen zuzendari batekin nahi zuten lan egin, eta euren gaitasun osoa aprobetxatzen saiatu naiz.

Aurretik eduki duzu beste esperientziarik zuzendari legez?

Urte askoan Hortzmuga taldeagaz jardun izan dut lanean, eta Ganso & Cia taldeagaz ere neuk egiten dut zuzendari lana. Azken boladan, Karrikaren antzezlan bat zuzentzen ere jardun dut. Herrialde Katalanetan nago orain, Panetone Brothers konpainiaren obra bat zuzentzen.

Zelako esperientzia izan da 'Orsai' zuzentzea?

Oso ona. Oso gogoko dut sormen lana. Aktore lanetan nire estiloaren bila dihardut, nire gaitasunei moldaturiko estiloa topatu guran. Zuzendari lanetan nabilenean, aldiz, askoz ere zabalagoa da eremua. Nirera moldatzen ez diren estiloak jorratzea eta oholtzan beste ideia eta antzezteko era batzuk ikustea oso interesantea da. Malas Compañias taldearen *Orsai* antzezlan honetan, gainera, zirkua eta malabarea baliatzeko aukera ere izan dut.

Zer nabarmenduko zenuke 'Orsai' lan honetatik?

Trebeziari baino, plazerari eta gozamenari garrantzia gehiago ematen dion zirku ikuskizuna da, berezia. Jolastu eta gozatu egiten dute aktoreek oholtzan, eta jolas horrek bideratzen ditu zirku ariketa batzuk egitera. Ariketak eurak ez dira ikuskizunaren helburuak. Clown teknika baliatuta, publikoak gurekin jolastea bilatzen dugu: gure saltsan sartzen dugu publikoa. ■ I.E.

> "Oholtzan beste ideia batzuk ikustea oso interesantea da"

ARGAZKIGINTZA>

"Oraindik ere hazteko marjina handia dauka Begira jaialdiak"

Iazkoak baino harrera hobea izan du, Leo Simoes koordinatzaileak esan duenez, 2012ko Durangoko Begira argazki jaialdiak. Oscar Molinak gidatu duen *Detras de la camara* tailerra, esaterako, arrakasta handia izan da, antolatzailearen berbetan.

Koordinatzailearen ustez, datozen edizioei begira jarrita, jaialdia "bide onetik doa eta oraindik ere hazteko marjina handia dauka Begira jaialdiak". 2013rako "anbizio handiagoko" jaialdia bultzatu gura dutela adierazi du Simoesek.

Begira jaialdiaren barruan hainbat erakusketa zabaldu zituzten Durangon, eta oraindik ikusgai daude azken hiru erakusketak, uztailaren 15era arte.

> Oraindik ikusgai daude azken hiru erakusketak, uztailaren 15era arte

Batetik, Durangoko Arte eta Historia Museoan, Laetitia Donval argazkilari frantziarraren *Nevers, festes & La Maison* dago ikusgai. Bestetik, Artleku galerian ere domekara arte zabalik edukiko dute Granadako El Trapiche argazki kolektiboaren lanak biltzen dituen *Hexápoda*. Hirugarrena, San Agustin kulturguneko sarreran dagoena, Natacha Marlo argazkilariaren *Absoluto* erakusketa da.

Ekainean eta uztailean, argazkigintzaren inguruko askotariko ekimenak ekarri ditu Begira argazki jaialdiak Durangora: berbaldiak, proiekzioak eta ikastaro bat izan dira aukeran. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net
...irailaren hasieratik
BERRIRO MARTXAN!
Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

Uztailak 13 • 19:00
UDA KALEAN BIZI
San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ
liburu-denda
artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Holtzako kaleratuak

Joan dan uztailaren 6ko Anboton, Holtzako langile-kaleratze baldintzen inguruko idatzia argitaratu zenuten, non kaletatzeak baldintza egoki samarrean eman direla antzematen zen. Zoritxarrez errealitatea oso ezberdina izan da, eta baita azaltzeko oso erraza ere. Fogasak ordaindu beharreko 20 egun horiek, soilik enpresaren porrot teknikoa deklaratzen danean edo hartzekodunen parte-hartzea izaten danean emango da; eta oraingoz ez da ez bata ez bestea ematen. Honek esan nahi du hilabete asko pasa daitezkeela, urteak agian, ordainketak eskudiru bilakatu arte; eta hori, Fogasaren aurrekontu eza dela medio, ordainketak inoiz ematen badira... Enpresak ordaintzen dituen 13 egunei dagokienez, %50 2013ko abenduan eta beste %50 2014ko abenduan ordainduko omen dituzte, betiere enpresak likidezia izango balu. Horrela ez balitz, enpresak oso zuhur jokatuz 'berme' bezala jarri duen txatarrarekin konformatu beharko ginateke. Aipatu behar da, kaleratutako langileen artean hainbatek 22 urte zeramatzatenean lanean enpesa honetan, 12 hilabeteko gehienezko ordainketak jasoko lituzketela. Beraz, 'ustezko' langile-ordezkari horien 'gestioei' esker, kalte ordainak ez luke lanean emandako urteen erdia ere beteko. Horrela ba, honek guztiak suposatzen duena zera da: lan erreforma berriaren aplikazio ezkutatu eta apaindua, zeinekin gizarteari saldu nahi dioten langile kopuru erdiaren kaleratze bat.

Hau guztia gutxi balitz, enpresak hiru nomina eta erdi, finikitoa eta abar zor dizkigu. Eta honek esan nahi duena da, otsailetik nomina bakar bat kobratu dugula, hain zuzen maiatzekoa. Eta ze kasualitatea, nomina hori enpresa-komitea negoziatzen ari zenean ordaindua izan zen. Jakina, balizko salaketak ekiditeko. Beraz, 0 euroren truke kaleratuak izan gara. Ez, minus hiru nominekin. Eta honek oso larriak bilakatu ditu hainbat langileen egoerak. Zer da jendeak nahi duena? Langabezi ordainketa ahalik eta azkarren kobratzen hastea eta amesgaizto hau baztertzea; eta hain zuzen, horretaz ere aprobetxatu da enpresaren zuzendaritza; unilateralki, inolako oposiziorik gabe, eta enpresa-komitearen onespenarekin bere neurri guztiak aplikatuz. Asanbladan harturiko erabakiari dagokionez, ez dugu lerro bat ere idatziko komentatzeko, ez baitu pena merezi. Utz dezagun 'argudio' hori sinetsi nahi duenarentzako. Jaso ezazue Otxandioko kaleratuen agurra.

Rafael Aldasoro, Aitor Magunazelaia, Joseba Garcia, Txemi Fdez de Romarategi, Roberto Cubero, Iñaki Gonzalez

Beste behin, murrizketak euskal hedabideentzat

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak %11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. Batean Jaurlaritzak, bestetan Aldundiak, bestetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bazaigu ere. Estrategikoa, bai, oinarrizko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garelako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dugulako. 27 milioi euro inguruko jarduera ekonomikoa eragiten dugulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondotxo dakigu hori. Inoiz baino ahalegin handiagoak egiten ari gara euskal hedabideok garai berri horietara egokitzeko: diru iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatzeko, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kikildu krisiaren aurrean, eta soberan ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri ekimeneko euskal hedabideek martxoan aurkeztu genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

Herri ekimeneko euskarazko hedabideok hausnarketa mahai bateratua sortzeko eskaera egiteaz gain, eskaera zehatzak ere jarri ditugu erakundeen mahai gainean: diru laguntza politika aldatu eta hitzarmen eredua ezar dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publizitate instituzionalaren banaketan hizkuntz irizpideak pisu handiagoa izan dezala.

Horren berri eman diegu erakundeei (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, besteak beste), eta kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta elkarlanerako prest agertu dira.

Baina praktika bestelakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horietan sakontzen laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen biziraupena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak ere izatera iritsi dira.

Esan bezala, badakigu garai zailak direla gutziontzat. Baina benetan estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorea berregituratzeko egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urtez urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dugu jakiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorkizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da. Horregatik, elkarlanerako deia luzatu nahi diegu berriz ere Eusko Jaurlaritzari, eta gainontzeko erakundeei. Denon ahotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da aitzakia izan ezinean dabilen herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen uzteko.

Herri ekimeneko euskal hedabideok beharrean jarraituko dugu, egoera berrietara egokitu eta kalitatezko euskarazko informazioa eskaintzeko. Erakundeei dei egin nahi diegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten behingoz. Badakigu denbora latzak datozkigula, baina horregatik, uste dugu inoiz baino beharrezkoagoa dela orain arte egin eta konpartitu ez dugun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean erabaki dezagun nolako sektorea behar dugun, behin hau eginda beharrezko baliabideekin horni dezagun.

Eider Carton (Elhuyar) Mikel Irizar (Tokikom), Joanmari Larrarte (Berria Taldea) eta Xabier Letona (Argia), Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen izenean

Barriketan euskara elkarteari

Erabaki ausarta hartu zuen Barriketan taldeak sortu zen egunean. Eta erabaki ausartagoa hartu du orain, desegitea erabaki duenean. Ez zen samurra izango Elorrion eta Durangaldean hainbeste gauza egin duen elkarte bati azkena eman behar zaiola erabakitzea. Baina ausarta da amaitu dena amaitu dela konturatzea eta aitortzea. Eta egindakoa hor geratuko da, hortxe dago, eta harro egoteko modukoa da. Barriketanek lan handia egin du euskararen alde Elorrion bertan, baina Durangaldeko beste euskaltzaleok ere nabaritu dugu bere lana. Esate baterako, Anboto argitaratzen duen elkartearen sortzaile eta bultzatzailea izan da Barriketan. Horri esker lortu dugu Durangaldeko komunikabiderik irakurriena Anboto izatea, esate baterako. Zenbat amets egin dugun elkarrekin, eta zenbat lan...

Horregatik Durangaldeko Herri Komunikabideak elkartearen izenean, eskerrak eman behar dizkizuegu, bai Barriketan elkarteari eta bai elkartea osatu duzuen lagunoi. Eskerrik asko euskaltzale.

Seguru amets asko geratu zaizuela eginkizun, eta amets horietako askotan bat egingo dugula. Eta ametsak egi bihurtzeko zaletasuna daukagunez, seguru elkar ikusiko dugula, han eta hemen, banan bana eta taldeka, eta sortuko direla tresna berriak, amesten dugun Euskal Herri euskaldun horretarantz pausu gehiago emateko. Seguru azken hau hasiera bat dela. Eskerrik asko zuen ausardiagatik. Lehengoagatik. Oraingoagatik. Eta gerokoagatik.

Gorka Barruetabeña, Anbotoko presidentea

■Sei hankako mahaia

Juanjo Gastañazatorre
PP

Jesus Mariren omenez

2000ko ekainaren 4ean ETAk gure adiskide eta Durangoko bizilagun Jesus Mari Pedrosa erail zuen. Zorigaitzeko egun haretatik pasatu dira dagoeneko hamabi urte, eta oraindino gaur egun gure udala, Durangoko biztanle guztion erakunde ordezkari legez, zorretan dago beragaz eta bere familiagaz.

Jesus Mari ezagutzen genuen guztiok badakigu pertsona adeitsua zela, jarrera irekia zuena eta, batez ere, behargin nekaezina bere udalerriaren interesen defentsan. Labur esanda, bere udal lanaren eta Durangoren zale grinatsua.

Erakundeen omenaldiak eta errekonozimenduak eskaini behar zaizkie beraien bizi-ibilbidea gainontzekoen zerbitzura dedikatu dutela erakutsi duten pertsonei, eta gure kide Jesus Mari Pedrosak nahi adina erakutsi zuen bere bizian zehar, partaide izan zen erakundearen aldetik gutxieneko sariren bat jasotzeko merezimendu osoa ematen dion bokazioa zuela zerbitzu publikorako.

Horregatik, eskatzen dugu udalak eskaini diezaiola kale bati bere izena

ETAren eskuetan bere ideologiarengatik eta Euskadin askatasunaren aldeko bere defentsagatik hain modu tragikoan hil izanak, are merezimendu handiagoz egin beharko litzaioke errekonozimendu hori, haren oroimenaren, haren duintasunaren eta haren memoria mantentzearen omenez, eta hedaduraz, terrorismoaren biktima guztien omenez.

Beraz, gure ustez ezin da gehiago atzeratu errekonozimendu institzionala eta, horregatik, eskatzen dugu udalak eskaini diezaiola kale baten izena bere herriaz maitemindutako bizilagun bati eta askatasuna defendatzeagatik bizia kendu ziotenari.

Gure udalari sentsibilitatea agertzeko eskatzen diogu, kasu egin diezaion erreklamazio honi, nahiz eta berandu izan, konpontzeko modu bat delako eta justizia egingo lukeelako, terrorismoaren biktima baten alde eta, duda barik, herritar eredugarri baten alde.

**Erredakzioan itzulia*

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MANARIA OTXANDIO ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko uztailaren 13a
10. urtea - 467 zk.

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna, Kepa Camacho.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrieta.
Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

UZTAILAK 14, 15, 17, 18, 19, 20, 21 ETA 22

OTXANDIO KO JAIAK

2012

anboto

Santamaña jai zoriontsuak opa deutsueguz!

OTXANDIOKO UDALA

Otxandioko jai egitaraua

UZTAILAK 14, ZAPATUA
Dantzari Dantza Eguna
• **18:00etan,** dantzarien kalejira.
• **19:00etan,** Durangaldeko hainbat taldegaz, Dantzari Dantza.
• **21:00etan,** dantzarien arteko herri afaria.
• **23:30ean,** dantzaldia Laket taldeagaz.

UZTAILAK 15, DOMEKA
Herri Kanta Eguna
• **12:30ean,** Otxandioko kaleak kantuz eta kantariz beteko ditu *Lagun artean kantari* ekimenak, Soinubilen eskutik.
• **14:30ean,** kantu-bazkari herrikoia Mainondoko gimnasio berrian.
• **17:00etan,** artzai-txakurren erakustaldia.
• **18:00etan,** kalerik kale, Soinubilekoak kantari.

UZTAILAK 17, MARTITZENA
• **19:00etan,** Salve Regina abestuko dute Santa Maña elizan.
• **19:00etan,** herriko pilotazaleek antolatutako pilota txapelketaren finala plazan.
• **19:30ean,** kalejira herriko txistulariekin.
• **20:00etan,** elkarretaratzea Otxandioko presoen eskubideen alde, plazan, Giza Eskubideen Udal Batzordeak deituta.
• **21:00etan,** txupinazoa: herriko saskibaloi taldeko neskek botako dute txupina.
• **21:05ean,** danborrada kalerik kale, Otxandioko Musika Bandagaz batera.
• **22:30ean,** Euskara Batzordeak bultzatuta, herritarrek grabatutako lip-dub proiekzioa, plazan.
• **22:35ean,** erromeria, Joselu Anaiak taldearekin.

UZTAILAK 18, EGUAZTENA
Santamaña Eguna
• **11:30ean,** kalejira herriko bandagaz.
• **12:00etan,** meza nagusia Santamañaren omenez, Oihandi abesbatzaren parteartzeagaz.
• **12:30ean,** kalejira herriko txistulariekin.
• **13:00ean,** Urduri dantza taldearen ekitaldia.
• **17:15ean,** pilota partidak Mainondon. Kadeteak: Jokin Trapero-Ibon Urrejola eta Beñat Iturbe-Endika Larruzea. Afizionatuak: Elezkano I-Larunbe eta Larrañaga-Rezusta. 'Kaitori' omenaldia.
• **19:30ean,** Kherau taldearen eskutik folk ikuskizuna, plazan.
• **22:30ean,** erromeria Luhartz taldeagaz.
• **23:30ean,** koadrilen arteko play-backa.
• **Ostean,** Luhartz taldeagaz erromeria.

UZTAILAK 19, EGUENA
Umeen Eguna
• **10:00-12:00,** globo aerostatikoa, Mainondoko futbol zelaian.
• **12:00etan,** Alkate Txikia: alkateak ume bati emango dio makila, eta udaletxeko balkoitik txupinazioa botako du.
• **12:10etan,** umeentzako parkea. Twistcar eta zapata saltariak, ibilgailuen zirkuitua...
• **12:10ean,** buruhandiak plazan.
• **12:30ean,** arimen meza.
• **12:30ean,** Iluntxo pilota eskolaren partidak, plaza nagusian.
• **16:00etan,** Euskatloia: ume, gazte eta nerabeen arteko proba jolasa. Izen-ematea: 16:00etan, plazan. Adinaren arabera hainbat maila sortuko dira. Sei urte arteko ume bakoitzak bere molto motorra ekarri beharko du. Zazpi eta hamasei urte arteko neska-mutilek bizikleta ekarri beharko dute (kaskoa erabiltzea derrigorra da).
• **18:00etan,** Soulflavas break dance ikuskizuna; ostean, break dance ikastaroa.
• **19:00etan,** buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistulariekin.
• **22:00etan,** ume eta gaztetxoentzako musika ikuskizuna Jon Daltonen eskutik, herriko plazan.
• **23:00etan,** suzko zezena haurrentzako.
• **23:30ean,** alkate txikiak kargua bueltatuko dio Otxandioko alkateari eta eguneko azken txupina botako du.

UZTAILAK 20, BARIKUA
Gazte Eguna
• **15:00etan,** Gazte bazkaria, herriko plazan.
• **18:30ean,** Gazte Olinpiadak.
• **23:00etan,** kontzertua, Gaztetxean.

UZTAILAK 21, ZAPATUA
San Martin
• **09:00etan,** arrantza txapelketa, Mataderoan.
• **12:00etan,** Otxandioko Bandaren kalejira.
• **12:30ean,** meza San Martinen.
• **13:30ean,** txistulariekin San Martinera.
• **14:00etan,** paella txapelketa, bolo txapelketa eta fanfarrea San Martinen.
• **19:45ean,** Bentazaharreko Mutiko Alaiak txarangak herriko bazterrak alaituko ditu.
• **23:30ean,** kontzertua: Arcada Social eta Gose taldeak.
• **Ostean,** erromeria Tximeleta taldeagaz.

K.A.

UZTAILAK 22, DOMEKA
• **07:30ean,** gaupaseroen argazki erraldoia.
• **07:35ean,** diana eta kalejira.
• **08:00etan,** sokamuturra.
• **12:00etan,** meza nagusia.
• **13:00ean,** omenaldia 1936ko bonbaketan hildakoei, Andikona plazan.
• **13:45ean,** ohiko limonada, plaza nagusian.
• **14:00etan,** Otxandio eta Araiako banden ikuskizuna, plazan.
• **17:00etan,** tute, mus eta briska txapelketa.
• **18:00etan,** herri Kirolak, herriko plazan. Ugaitz Mugerza II eta Unai Otaño aizkolari. Xabier Aranburu 'Guzta' eta Urdax Magunazelaia harrijasotzaile.
• **19:30ean,** txarangak herriko bazterrak alaituko ditu.
• **22:30ean,** *Zerutik sua dator*, Andikona plazan. Bizkaiko hainbat herriren eta otxandiarren laguntzagaz grabatutako ikus-entzunekoa.
• **23:30ean,** erromeria Orotz taldeagaz.
• **01:30ean,** *Agur Santa Marina* abestuz jaiak amaituko dituzte.





Koadrilak izango dira protagonista santamañetan

Bost proba prestatu dituzte koadrilen arteko txapelketa egiteko; uztailaren 17an jokatuko dute lehenengoa

Koadrilek inoiz baino protagonismo handiagoa edukiko dute aurten. Koadrilen arteko txapelketa eratu dute, herritarren parte-hartzea bultzatu guran. Bost proba prestatu dituzte hilaren 17tik 22ra bitartean jokatzeko. *Santamañetan koadrilok herrixai buelta emotera goiez,* lema ipini diote ekimenari. Herritarrak ikusle beharrean protagonista izateko asmoagaz, umeentzako ere eratu dituzte ekintzak.

> Koadrilen arteko txapelketa eratu dute, herritarren parte-hartzea bultzatu guran

Txapelketako bost proba horiek, hauek izango dira: 17an, danborrada; 18an, playbacka; 20an, olinpiadak; 21ean, paella txapelketa; eta 22an, jaietako argazki bat aurkeztea. Partaidetzaz gainera, olinpiadetan, play-backean eta paella txapelketan irabaztea ere baloratuko dute. Play-backa euskaraz bada eta taldeak mistoak badira, puntu gehiago lortuko dituzte. Irabazleentzako saria bazkari bat izango da.Herriko tabernetan edo *jaibatzordea@gmail.com* helbidean eman ahal da izena.

Umeei eskainitako eguna

Koadrilez gainera, umeek ere jaiaz zuzenean disfrutatzea gura dute jai batzordekoek. Horregatik, uztailaren 19a Umeen Eguna izendatu dute. Haur bat alkate txikia izango da egun batez. Alkatearen eskutik jasoko du aginte-makila. Olinpiadak, *Euskatloia* eta arrantza txapelketa ere prestatu dituzte txikienentzako.

‘Euskaraz bizi guredu’ lip-dub herrikoia emango dute plazan

Ehundaka otxandiarren parte-hartzeagaz grabatu dute euskararen aldeko bideoa, eta martitzen gauean proiektatuko dute publikoki

Ekainaren 23an Otxandioko kaleetan grabatu zuten lip-duba elkarrekin ikusiko dute parte hartu zuten herritarrek, martitzen gauean. Herriko hainbat talde eta elkartetako kideek parte hartu zuten grabazioan. Bakoitzaren jardunari zegozkion jantzi eta tresnekin atonduta agertu ziren ekaineko hitzordu hartara.

Martitzenean, 22:30ean, plazan emango dute *Euskaraz bizi guredu!* lemagaz grabatu zuten ikusentzunezko lana. Eguneroko bizitzako egoerak irudikatu dituzte euskararen aldeko bideo herrikoian: gurasoen eta seme-alaben arteko hartuemanak, koadriletako lagunenak, enpresetako lankideenak… Esne Beltza taldearen *Euskaraz* kantaren erritmora ageri dira playbacka egiten. Andikona plazaren eta udaletxearen artean hartu zituzten irudiak, eta herriko plazan hasi eta amaitu zuten grabazioa ren ibilbidea.

> Normalizazioan pausuak ematen jarraituko du euskaltzaleen Amaraune taldeak

Funtsean, euskaraz bizi ahal izateko beharrezkoena horretarako gogoa izatea dela adierazi gura dute irudiekin. “Euskara ez da gauza abstraktua, euskara euskaldunok gara, eta bizi nahi izatea ere ez da abstraktua, gogo hori gutako bakoitzaren barruan dago eta eguneroko bizimoduan jartzen da praktikan". Horrela azpimarratu zuten ekimenaren bultzatzaileek.

Euskararen normalizazioan pausuak ematen jarraituko du Otxandioko euskaltzaleen Amaraune taldeak, eta etorkizunean ere bestelako ekimenak antolatuko dituztela iragarri dute.

JOKALARIAK

Goian ezkerretik eskumara:
Daniela Lopez (13 urte)
Maria Oleagordia (12)
Ane Unzalu (13)
Miren Alonso (12)
Beatriz Da Silva (10)

Behean ezkerritik eskumara:
Jone Arruabarrena (14)
Paula Unzalu (13)
Malen Zabala (14)
Leire Uribe (13)
Lore Ajuria (11)
Xixili Bengoetxea (11)

Argazkian ez daudenak:
Itxaso Zuluaga (jokalaria) eta Oier Nafarrate (entrenatzailea)

Poza, urduritasuna eta lotsa batuko zaizkie txupinazoan

Otxandioko saskibaloi taldea aurten sortu dute; taldeko neska gazteek botako dute aurtengo Santa Maña jaiei hasiera emango dien txupinazoa, uztailaren 17an, 21:00etan

Santa Maña jaiei hasiera emango dien txupinazoa botatzeko ardurak sentimendu koktela eragin die saskibaloi taldeko gazteei. Ez zutela espero eta oso pozik daudela diote, baina aldi berean urduri ere bai. Eta lotsatuta. Lotsa handia sentituko ei dute, hilaren 17an, 21:00etan, herri osoa begira egongo delako.

Talde osoa batuko da balkoian, baina inork ez du txupinazoa botatzeko erantzukizuna bere gain hartu gura. Paula Unzaluk badu zeregin horretan esperientzia, orain urte bi ere bisitatu zuelako udaletxeko balkoia, Urduri dantza taldeko ordezkari. Hori gogoratuta, berari proposatu diote txupinazoa botatzeko eginkizuna. Ezezko borobilagaz erantzun du Unzaluk. Kapitainari ere ezin diote ardura hori bizkarreratu, taldean ez dagoelako kapitainik. Orduan beste ideia batek irten du: Oier Nafarrate, taldeko entrenatzailea konbentzitzea, baina aukera hori ere ez da segurua, udalekuetan monitore dabilelako eta beharbada ezin izango duelako etorri. Azkenean irteera zuzenena adostu dute. Zozketa bidez erabakiko dute arduraduna eta egokitzen zaionak bota beharko du, nahi eta nahi ez.

> Jaietan aktiboki parte hartzen dute. gazte olinpiadetan aritu ziren iaz

Jaietan aktiboki parte hartzen duten gazteak dira. Esaterako, iaz gazte olinpiadetan aritu ziren: "Gu ginen koadrilarik gazteena eta hori asko igarri zen. Dena dela, aurten ere parte hartzeko asmoa dugu", adierazi du Lore Ajuriak. Orain asteburu bi euskararen erabilera sustatzeko helburuagaz grabatu zuten lip-dubean ere agertuko dira: "Plaza inguruan egon ginen. Baloia eskuetan genuela abesti zati bat kantatu eta baloia atzekoari pasatzen genion hark kateari segida emateko. Hiru hartualdi egin zituzten. Hiruretatik zein aukeratu zuten eta lip duba zelan geratu zen ikusteko gogo handia dugu". Santa Maña jaien barruan estreinatuko dute bideoa: uztailaren 17an, 22:30ean, plazan emango dute.

> Orain asteburu bi euskararen erabilera sustatzeko grabatu zuten lip-dubean agertuko dira

> Saskibaloi taldea aurten sortu dute; hamar eta hamalau urte arteko hamabi gazte dabiltza

Ikasteko gogoz

Otxandioko nesken saskibaloi taldea aurten sortu dute eta hamar eta hamalau urte arteko hamabi jokalari dabiltza. Eskolan ondo ematen zitzaielako aukeratu zuten saskibaloia eta ez beste kirol bat. Gainera, taldeko jokalari asko garaiak direla azaldu dute. Dena dela, aurten ikasi dute saskibaloian dena ez dela garaia izatea. Oso onak diren jokalari txiki askoren kontra jokatu dute aurten. Garaiera bezain garrantzitsua omen da abilezia eta taldeko lana.

Esperientzia handiko taldeen kontra jokatu dute eta eurak hasiberriak direnez, normala den moduan, sarritan galtzea egokitu zaie. Hala ere, aurten elkarrekin ondo pasatzea eta apurka ikasten joatea izan da helburua. Datorren denboraldian, beste pausu bat ematen ahaleginduko dira.

Denak irabazi zein ez, Oier Nafarrate entrenatzaileagaz jarraitu gura dute, Ajuriak esan duenez: "Taldea sortu genuenean, lehenengo berak ikasi behar izan zituen arauak eta sistemak gero guri erakusteko. Eskerrak eman nahi dizkiogu gure entrenatzailea izateko ardura onartu zuelako. Badakigu beti ez garela esanekoak izan, baina datorren denboraldian berak jarraitzea gura dugu".

4 ALMACENES ARRASATE

TIEN 21

Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industrigunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13

7 URTEKO BERMEA FAGOR PRODUKTU GUZTIETAN

1000 b/min 6 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF-1106
260 € aspes

1200 b/min 6 kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-6012
299 € FAGOR

1400 b/min 7 kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WAE-28161EP
399 € BOSCH

1200 b/min 8 kg
A+++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-8212
399 € FAGOR

1200 b/min 8 kg
A+++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WM-12Q488
445 € SIEMENS

A+ LABEA HB-74AS551E
490 € SIEMENS

INDUKZIOZKO PLAKA EH-651TK11E
445€ SIEMENS

A Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA SMS-50E72EU
399 € BOSCH

1850 X 600 X 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA FCT-682
485 € FAGOR

2000 X 600 X 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA FFK-6835X
625 € FAGOR

PREZIO BEREZIAK

SAN FAUSTO AUZOKO ETA ABADIÑOKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETARAKO

FAGOR edesa | BOSCH Balay | AEG | SIEMENS

* Beherapena duten produktuetan izan ezik.

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistentzako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA JASOKO DA
MERKEAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA
GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU
+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

AISIALDIA >

mendi ibilbideak



Bizikletan Oizera igoera, Durangaldea kontenplatzeko

Begiratoki ikusgarria dago Oizen, aldapak igo ostean atseden apur bat hartu eta panoramika zabalaz gozatzeko, beherantz bueltatu aurretik.

Ibilbideari hasiera Durangon eman, eta Traña-Matienatik pasatu behar da lehenengo aldapak igo aurretik. Handik Markinarako bidea hartu eta biribilgune berrian Garairako errepidean sartu. Gerediagan, lehenengo aldapari ekin, eta amaiera aldera Sarria auzorako bidea hartu behar da eskumatik.

Erroteta ingurutik gora jo eta kasik Garaira ailegatuko da txirrindularia. Garai ezkerreko aldean utzita, pista txiki batetik jarraitu behar da. Hamargarren kilometroan Oizera doan pistan gora egin. 15,4 kilometrora arte aldapan gora doa ibilbidea. Hala ere, hamalaugarrenean San Kristobalerako pista utzi eta eskumatik segitu behar da. Hortik Losakantereta aldera, Pista nagusia utzi eta txikiago batetik joan behar du txirrindulariak.

Oizeko tarte altuenak orduan hasiko dira agertzen. 16,6 kilometroan ezkerretara hartu beharko da. Segidan, metro gutxira, berriro ere eskumatara.

Oizeko begiratokia

Oizera heldu eta atsedena hartu ahal da bertan. Gainera, Durangaldeko bazterrak goitik ikusteko begiratoki aparta izango da. Bueltan, jaisteko, bide bera erabili ahal da. Ereña auzotik jaistea ere posible da.

ZER IKUSI...

Gerediagako ermita, Abadiñon

Garaiko herrigunea

DISTANTZIA	IRAUPENA	IGOERA METATUA	ZAILTASUNA
26 km	1:45 ordu	731 m	Erraza

laguntzaileak

berrizko UDALA · Garaiko Udala · Iurretako Elizateko Udala · Mallabiko Udala · Otxandioko Udala · Zaldibarko Udala

babesleak

durango TURISMO · institutua Durango

@anbotokirola

Turismoen autokros txapelketa jokatuko dute bihar Atxondon

Aurten lur orotarako ibilgailuak beharrean turismoak ibiliko dira Markoidako landetan

Ibilbidea laua eta azkarra da, baina bihurgune ikusgarriak ere gehitu dizkiete.

Apatako jaien barruan, autokros txapelketa antolatu dute zapaturako, 15:30ean, Markoidako landetan. Iaz arte, lur orotarako ibilgailuak izaten ziren protagonista. Aurten, turismoen inguruko txapelketa antolatu dute arrazoi bigatik: antolatzeko errazagoa delako eta Gizaburuagan urte askoan antolatu den autokrosa bertan behera geratu daitekeenez, haren oinordetza hartzeko.

Autokros txapelketa federatu gabeko auto zaleei zuzenduta dago eta turismo denek parte hartu ahal dute, 4X4ko trakzioa dutenek izan ezik. Iaz arte hainbat tarte antolatzen zituzten eta batez ere abilezia saritzen zuten.

> Helburua, "denon artean ikuskizun polita eskaintzea da"

Aurten zirkuitu bat diseinatu eta lasterketa eran planteatu dute txapelketa. Turismoak helmugara nor arinago heldu neurtuko dira zirkuituan, txandaka. Lehenengo hiruren artean sariak banatuko dituzte, baina helburu nagusia "denon artean ikuskizun polita eskaintzea eta auto zaleen bilgune bihurtzea da", Beñat Amiano ekimeneko antolatzaileetako baten esanetan.

Zirkuitu azkarra eta laua prestatu dute. "Hasierako tarte zuzena nahiko luzea da eta irteeran borroka polita egon daiteke lehenengo bihurgunera ahalik eta aurreren heltzeko". Abiaduraz gainera, trebezia ere beharko dute gidariek: txikanak, 'S' formako bihurguneak, urkila erako bihurgune itxiak… Denetarik izango du ibilbideak.

Oraingoz, 40 bat gidarik eman dute izena eta lasterketa hasi aurretxora arte zabalik egongo da epea. Markoidako landetan bertan inskribatu ahalko da. Parte hartu ahal izateko segurtasun neurriak bete behar dira: gidariek kaskoa eta gerrikoa ipinita gidatu beharko dute eta turismoek gidariaren aldeko atea ere izan beharko dute.

Ekimenari jai giroa emateko, arratsalde osoan musika ipiniko dute eta edariak hartzeko barra bat egongo da. ■ J. Derteano

DATUAK

Noiz: zapatuan, 15:30ean.
Non: Apatan, Markoidako landetan, herrigunera sartzeko bidegurutzearen alboan.
Nortzuk: turismo guztiek, 4X4ko trakzioa dutenak kenduta.
Izen-ematea: egunean bertan eta zenbaki honetara deituta: 690 771 328.
Segurtasun baldintzak: gidariek kaskoa eta gerrikoa ipinita eta auto denak gidariaren aldeko ateagaz.

- Aritz Arretxe
- Atxondarra, 30 urte

"Helburu nagusia ondo pasatzea da, irabazteak ez dit ardura"

Lasterketarako prest?
Prest. Betidanik gustatu izan zait autoen mundua eta horrelako ekimenak eskertzekoak dira. Dena dela, nire helburu nagusia ondo pasatzea da, irabazteak ez dit ardura.

Ibilbideak azkartasuna eta trebezia, bietatik eskatzen du.
Ibilbide arina da. Gizaburuagako autokrosean lehenengo martxa biak erabiltzen dira batez ere. Apatan hirugarren martxa erraz erabiliko dugu.

Zein turismogaz parte hartuko duzu?
Ford Escort XR3 bategaz ibiliko naiz. Iaz Gizaburuagan auto berbera erabili nuen eta kolpe batzuk hartu zituen, baina motorra ondo dabil eta prest dago Apatarako.

Autoak prestatzeak inbertsio handia eskatzen du?
Ez hainbeste: barrua hustu pisua arintzeko, gurpil onak ipini eta aurrera, autoak eusten dion arte. Zaletasuna izanez gero, denen eskura dagoen zerbait da.

Proba askotan aritzen zara?
Zoritxarrez ez dago aukera handirik. Aurten Gizaburuagakoa ez dutela egingo dirudi. Pena da, horrelako gehiago antolatu beharko lirateke.

Kurutziagako entrenatzaile ohia Elorriokora

Areto futbolean Iker Saenz de la Cuesta (Durango, 33 urte) izango da Elorrioko Buskantza taldearen entrenatzaile datorren denboraldian. Elorrioko Euskal Ligara jaitsi zen iaz eta aurten Hirugarren mailara itzultzea lortu gura dute.

Durangarra urte askoan Kurutziaga areto futbol taldeko entrenatzailea izan zen eta iaz Sestaoko taldea gidatu zuen Hirugarren mailan. Hainbat talderen eskaintza izan duela dio, baina Elorriokoa iruditu zaiola interesgarriena. ■ J. D.

Frades, Corujo eta Urien bikain Valladoliden

Valladolideko lehenengo Ican Triatloian protagonista izan ziren Mugarra Triatloi taldeko hiru kide: Gurutze Frades, Roberto Corujo eta Unai Urien.

Emakumeetan irabazi egin zuen Frades iurretarrak eta 16 minututik gorako aldea atera zion bigarrenari. Corujo laugarren geratu zen Ican 52 distantzian eta hirugarren bere mailan, urteko bere lehenengo triatloian. Urien bigarren sailkatu zen 23 urtez azpikoan. Durangarrak urtebete eskas daroa triatloiak egiten. ■ J.D.

Iurretako pilota txapelketa final laurdenetan da

Pablo Berasaluze IV. Pilota Torneoan erabakita daude gazte mailako final laurdenak. Astelehenean, 19:00etan, neurketa bi daude: lehenengoan, Irrabarriak eta Imazek Mendia eta Pradera izango dituzte arerio eta bigarrenean, Ibarrondo eta Isasi Iturriaga eta Goñiren kontra ariko dira. Hilaren 21ean Dario-Sanchez eta Mujika-Iruretagoienak neurtuko dituzte indarrak; hilaren 25ean, berriz, Espinal-Kordon eta Olaizola-Mendi bikoteek. ■ J. D.

CENTRAL FORESTAL
42 Urte Euskal Basoen Zerbitzura
Smurfit Kappa Nervión
Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!
Jasangarritasuna bermatzen
PEFC FSC
ziurtagirien bitartez

OSASUN GIDA

PEDAGOGIA

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotriozitatea, Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO
tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO
tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA

Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirugia
IMQ - SANITAS - ARESA
Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO
tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA

B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO
tf: 94 681 99 51

HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO
tf. 94 466 94 00

GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiropodia,Onikopatia, Alterazio Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO
tf: 94 620 36 30

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO
tf: 94 681 22 00

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILIZAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari ezin eustea, *traumatologia, kirola, trafiko istripua, drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),…*

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ
tf. 94 622 55 93

ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO
tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA

KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO
tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

Urrezko belaunaldia Euskadiko txapeldun

Bidezabal atletismo taldeko neskek Euskadiko txapelketa irabazi dute kadeteetan; mutil eta nesken artean 23 domina pilatu dituzte

Bidezabal klubeko neska kadeteen taldea, Durangoko atletismo pistan.

Kadeteetan urrezko belaunaldia du Bidezabal atletismo klubak. Horixe erakutsi zuten ekainaren amaieran Durangon, kluben arteko Euskadiko txapelketan. Neskek kadete mailako txapelketa irabazi zuten, hamazazpi dominagaz. Mutilek sei dominagaz borobildu zuten nesken lana. Beraz, guztira 23 domina irabazi zituen Bidezabalek.

Horrela, Bidezabaleko nesken taldeak lehenengoz irabazi du kadeteen Euskadiko txapelketa eta, bide batez, gazteetan Gipuzkoako klubek azken urteetan zuten hegemonia apurtu du. Tolosa eta Txindoki taldeak bigarren eta hirugarren postuekin konformatu behar izan ziren, Bidezabalengandik sei eta hamasei puntura.

> Gipuzkoako klubek azken urteetan zuten hegemonia apurtu du

Urrezkoak, zazpi

Irabazitako dominetatik zazpi urrezkoak izan ziren. Nesketan, Naia Lertxundik (disko jaurtiketan), Leire Gorrotxategik (xabalina jaurtiketan), Irene Perezek (altuera jauzian) eta Ainhoa Izagirrek (mailu jaurtiketan) jantzi zuten urrea. Aipagarria da Alazne Etxeberriaren eta Nerea Aranbururen lana ere, brontzezko eta zilarrezko domina bana irabazi zutelako. Dominen zakua osatu zuten Andrea de la Torrek, Ane Pinagak, Garazi Lekunberrik, Izaro Telleriak, Aitana Benitok, Nerea Costak eta Irantzu Aresek.

Mutilek ere oso lan ona egin zuten. Irabazitako sei dominetatik hiru urrezkoak izan ziren: David Izakara (altura jauzian), Jon Arroita (salto hirukoitzean) eta 4X100 erreleboko taldearena.

Asteburuan nagusien txanda

Atletismoak ez du atsedenik hartuko asteburuan. Bihar eta etzi nagusien mailako Euskadiko txapelketa jokatuko dute Durangoko azpiegituretan. Bidezabalek ordezkaritza zabala izango du. ■ J. D.

ADITUAREN TXOKOA

Kepa Arroitajauregi
Pilota teknikaria

Bat baina anitza

Euskal Pilota kirol bakarra baina aldi berean anitza da. Jokamolde asko dira aitatutako bi hitzen barruan txertatuta daudenak nahiz eta gehienentzat guztien artetik bakarrak izan nolabaiteko zentzua, esku pilotak. Niri geroz eta gitxiago gustatzen jat 'pilotazale' gehienek eskuari bakarrik eskeintzen dioten errekonozimendua. Nahiz eta logikoa izan 'saldutakoa' hori baita, hainbat jokamolde, kirolari, ibilbide, aukera…, zokoratuta eta balio gabe uzten dira.

Horregatik, leihatila honetatik ustez bigarren mailako diren kirolari edo jokamolde horiei botako deutset begiradatxoa gainera, berton Durangaldean, hainbat direlako maila bikainean dabiltzanak. Nesken Gomazko Paletan mallabiar bi fin ari dira. Itsaso Pradera eta Amaia Araiztegi euskal palista onenekin batera nesken protagonismoa aldarrikatzen dabiltza. Trinketean beste horrenbeste esan liteke Rober Uriarte, Ander Antxia edo Mikel Gonzalezen kasuan, zeinak ezker hormako atea itxita teilatupean topatu duten lekua; hegoaldean jaun eta jabe, iparraldean bideak irekitzen hasi dira jada.

Pilota irlandarra ere aipatu gura neuke. Gure pilotari askori mundu zabalerako atea zabaldu diena eta asteburuan Euskadiko txapela soineratu ostean agian 2006an Edmonton-en lortutako munduko titulua berritzera joateko aukera eman diezaiokeena Egoitz Amantegi abadiñarrari. Danak aipatuta, ezin utzi alde batera ezker hormakoa eta Pablo Berasaluze. San Fermin torneoan artista, nahiz eta emaitzek lagundu ez. Benetan gozarazteko jokua du berriztarrak.

Jessica Galvan eta 'Deimos' irabazle, Amorebietako proban

Berrizko Dukiena Hipika Klubeko Jessica Galvanek Amorebietako zaldi txapelketa irabazi zuen uztailaren hasieran. Egun bitan hiru proba egin zituen *Deimos* zaldiaren gainean: heziketa, kross eta salto probak. Bikote horren garaipen bakarra ez da izan Amorebietan lortutakoa. Maiatzaren 13an Zamudioko Derbiko III. aldia ere irabazi zuten. ■ J. D.

Eibartar batek irabazi du tenis txapelketa

Mallabiko areto futbol taldeak antolatu duen tenis txapelketa Ruben Pinillos eibartarrak irabazi du. Finalean Zaldibarko Javier Castrillo izan zuen arerio eta bi set-ean menderatu zuen.

Lehenengo set-a orekatua izan zen eta tenislari biek ikuskizun polita erakutsi zuten. Azkenean, *tie break*-a jokatu behar izan zuten lehenengo set-a erabakitzeko eta Pinillosentzako izan zen (7-6). Bigarrenean Pinillosek birritan apurtu zuen Castrilloren sakea eta erraz nagusitu zen (6-2).

Antolatzaileak gustura agertu dira tenis txapelketak izan duen harreragaz. Guztira, hamabi lagun ibili dira lehian Mallabian. ■ J. D.

Mirandesek zeresana eman ahal duela uste du Koikili Lertxundik

Datorren denboraldian Burgosen jokatuko du otxandiarrak; ilusio handiz agertu da

Koikili Lertxundik atzo izan zuen lehenengo entrenamendua Mirandes futbol taldeagaz (Burgos, Espainia). Urtebeterako kontratua sinatu du iaz bigarren mailara igo zen taldeagaz.

Hainbat arrazoigatik joan da Mirandesera: "Lehenengo mailan jokatzeko ez dut aukerarik lortu. Bestalde, Mirandes proiektu sendoa osatzen ari da eta Bigarren mailan zeresena eman dezakegu. Gainera, taldeko jokalarien hiru laurdenak ezagutzen ditut, gertukoak direlako edo euren kontra jokatu dudalako. Entrenatzailea Carlos Pouso izatea ere kontuan hartu dut. Beste faktore bat Miranda etxetik nahiko gertu dagoela da". Iñaki Garmendia otxandiarragaz eta Gasteizen jasoko dituzten beste jokalari bigaz joango da egunero entrenameduetara. Bigarren mailari eusten eta, ahal dela, sailkapeneko goiko hamarren artean amaitzen saiatuko dira: "Azken urteetako proiektua sendotzea da aurtengo helburua". ■ J.D.

Koikili Lertxundi, martitzenean, Mirandan, aurkezpenean.

“Ez dugu etsiko; etapa garaipena bilatuko dugu”

Samuel Sanchezen erorikoak Tourrean helburu zehatz barik utzi dituela onartu du Ruben Perez Euskaltel Euskadiko txirrindulariak

Ruben Perez, Iazko Tourreko etapa batean.

Euskaltel-Euskadi taldeari bost ordezkari bakarrik geratzen zaizkio Frantziako Tourrean. Erorikoen ondorioz, lasterketa utzi dute Mikel Astarlozak, Gorka Verdugok, Amets Txurrukak eta Samuel Sanchez talde buruak. Kolpe bereziki gogorra izan da Sanchezena, taldearen helburu nagusia asturiarrarentzako lan egitea zelako. Oraindino lehian jarraitzen duen boskoteko kidea da Ruben Perez zaldibartarra eta, kolpea gogorra izan dela onartu ostean, animoso agertu da: “Ez dugu etsiko, suspertu eta aurrera jarraitu behar dugu. Geratzen garen denok lehiakorrak gara eta etapa garaipena bilatuko dugu”.

Sanchezek Tourra utzi ostean zer egin ondo ez zekitela geratu ziren. “Helburu garbi bategaz etorri ginen, Samuri laguntzea”. Sanchez bera izan zen taldekideei animoak ematen lehenengoa. “Tourra ez zela orduan amaitzen eta azkenera arte borrokatu behar dela esan zigun. Bai berak eta bai taldeak animo asko eman dizkigute”.

> Sanchez bera izan zen taldekideei animoak ematen lehenengoa

Orain arte, batez ere, bi-hiru txirrindularik zuten ihesaldietan saiatzeko ardura. Orain, “denok batera horretan saiatuko gara”. Hainbat etapa dituzte begiz jota. Astelehenekoa da bat, Paun amaitzen dena, eta barikukoa bestea, Brive La Gallarden erabakiko dena. Lehenengo, hirugarren eta laugarren mailako mendateak eta ibilbide gorabeheratsua dira ezaugarri nagusiak etapa horietan: “Zaila izango da. Esprinterrek lasterketan jarraitzen dute eta euren taldeak gogotik saiatuko dira lasterketa esprintean amaitu dadin”.

> “Ea zaleen animoekin eta geure indarrekin etapa irabazten dugun”

Beraz, Pirinioetako etapa bietan ere saiatzeko asmoa dute: “Etapa gogorrak dira, baina gogotik ahaleginduko gara. Marea laranjak seguru asko animatuko gaituela Pirinioetako etapetan. Ea zaleen animoekin eta gure indarrekin etapa bat irabazten dugun”. ■ J. D.

Kirol hitzarmenetan iazko diru kopuruei eutsi diete

Durangoko Udalak hamahiru kirol elkartegaz zuen hitzarmena berritu eta iazko diru kopuru berbera bideratu du: 273.600 euro

Durangoko Udalaren eta kirol elkarteen ordezkariak, astelehenean, udalbatzar aretoan.

Ander Gorrotxategi Durangoko kirol arloko zinegotziak eta hamahiru kirol elkartetako ordezkariek 2012ko hitzarmenak sinatu zituzten astelehenean, udalbatzar aretoan egindako ekitaldian. Iazko hitzarmen kopuru bera sinatu zuten, elkarte berberekin. Denen artean banatuko duten diru kopurua ere berbera da: 273.600 euro.

Horixe nabarmendu zuen Aitziber Irigoras alkateak, udaletxeko baliabideak direnak direla ere, iazko hitzarmen kopuruak eta zenbatekoak mantendu zituztela: “Badakit sarritan ez dela nahikoa kirola nahi moduan sustatzeko, baina heldu ahal izan garenera arte heldu gara. Badakit zuek dirua ahalik gehien luzatzen duzuela”.

Bizkaiko Pilota Federazioak (52.000 euro) eta Durangoko Txirrindulari Elkarteak (53.600) jasoko dituzte kopururik handienak. Taldekako kiroleko ordezkari garrantzitsuenek, Tabirakok, DRT-k eta Kulturalak 20.000 eurona jaso dute. ■ J.D.

ZENBATEKOAK

- **Bizkaiko esku pilota federazioa:** 53.000 euro
- **Durangoko Txirrindularitza Elkartea:** 53.600
  - Nesken taldea: 38.000
  - Klasika: 15.600
- **Baque Fundazioa:** 42.000
- **Tabirako:** 20.000
- **DRT:** 20.000
- **Kulturala:** 20.000
- **Alpino-Tabira:** 15.000
- **Sasikoa:** 10.000
- **Mugarra TT:** 12.000
- **Euskal Gimnasia Federazioa:** 8.000
- **Clasicas Durango:** 6.000
- **Extremeño FT:** 6.000
- **Atleta Beteranoen Euskal Elkartea:** 5.000

Amantegi eta Pradera onenak One Wall-ean

Egoitz Amantegik eta Itsaso Praderak iazko txapelak errepikatu zituzten Mungian

Faboritoek aurreikuspenak bete zituzten Mungian jokatutako One Wall finaletan (aurreko horma bakarrik duen pilotalekua). Hala ere, buruz buruko txapela lortzeko latz sufritu zuen Egoitz Amantegi abadiñarrak. Iker Gordonek irabazi zion lehenengo set-a eta hurrengo biak aurrera ateratzeko bere jokorik onena erakutsi behar izan zuen. Binaka mendekua hartu zuen Gordonek. Ugarte bikoteagaz batera Sopelara eroan zuten txapela, finalean Amantegi-Aspuru bikote abadiñarra menderatuta.

Emakumeetan eta binaka, Pradera-Etxaniz bikoteak jantzi zuen txapela finalean Araiztegi-Gallastegi menderatuta. Itsaso Pradera mallabitarrak eta Leire Etxanizek gomazko paleta zirkuitua ere irabazi zuten orain asteburu bi. ■ J. D.

Tabirakoren Sukia uda eskolan 185 gaztetxok parte hartu dute

Tabirako saskibaloi klubaren Sukia uda eskolak zazpi eta hamalau urte arteko 185 gaztetxo batu ditu aurten. Aurtengo helburuen artean saskibaloia eta euskara uztartzea izan dituzte, besteak beste. Egun batean Bilboko Silla Ruedas elkarteko jokalari baten bisita izan zuten eta gaztetxoek gurpildun aulkian jokatzeak dituen zailtasunak ezagutu zituzten.

DURANGO

ERROTARITXUENA

Arriskurik gabeko aukera bat

Bezero izatearen lasaitasunarekin

- Sustapenaren finantzaketa ez delako arazo bat.
- Bezeroaren finantzaketa idatziz bermatzen delako.
- Eskatutako finantzaketen %90 ematen delako.
- 1. faseko emaitza ezagutzen duzulako.
- Obra aurrera doa 2013ko abenduan zure etxebizitza eduki dezazun.
- Sinatzen duzuna ezagutzen duzulako.
- BEZEROA zarelako, bestelako trabarik gabe.

%100 arte finantzatutako erosketa:

SabadellGuipuzcoano

2 log. 199.000€-tik aurrera + BEZ

Eraikitzen ari garen promozioa. Informazio hau aldatu egin daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Apirilaren 21eko 515/89 E.D.an eskatzen den eta publizitate honen barruan ageri ez den informazio guztia interesatuen esku dago gure merkataritza-bulegoetan.

www.sukia.com
www.solvia.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

INMOBILIARIAK >

AMBOTO
INMOBILIARIA
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

• SAN INAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
• Apartamentu berriak eraikitzen. 119.000€-tik AURRERA. EZ GALDU AUKERA HAU.
• 2 logelako apartamentua. Egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. 114.000€. Berriztatzeko.
• ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
• EZKURDI: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua.
• FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
• HERRIKO GUDARIEN: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Ganbara eta garajea.
• ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko. Zonalde onean kokatua.
• ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
• BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

LEKEITIO

• 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

• ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
• 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

BERRIZ

• 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta ganbara.

ATXONDO

• 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

• 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

IURRETA

• 2.000 m2-ko lursaila salgai. Leku zoragarria. Sarbide ona.
• 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

• 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruitarbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

• 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu.Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

• 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

• Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

ZORNOTZA

• LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK SALGAI

BERRIZ

• MURGOITIOn kokatuta dagoen baserria salgai.Nekazalturismo edo landa etxe izateko aproposa. Ikuspegi politak.

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea 15, behea • Tel./Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXEBIZITZAK SALGAI

• ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
• DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatuak eraikitzen.
• BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.
• OTXANDIO: Adosatuak. Eraikuntza berriak. 174.500€-tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

• ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 3/4 logela, 2 komun eta egongelatxoa.
• ANDRA MARI: Halla, egongela, egongelatxoa, sukaldea, jangela, 5 logela, 3 komun.
• ANTSO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
